

FERNANDO AIRE  
"XALBADOR"



**EZIN  
BERTZEAN**

# EZIN BERTZEAN

AUSPOA LIBURUTEGIA

85

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.  
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 380 pezeta    Atzerrian: 500 pezeta  
Ongilleak: 600    "    Ale bakarra: 50    "**

FERNANDO AIRE  
"XALBADOR"

EZIN BERTZEAN

AUSPOA LIBURUTEGIA  
1969

*D. L. S. S. 497/69*

**Azaleko argazkia: FOTO MARIN**

***IZARRA - Peña y Goñi, 13  
San Sebastián - Sebastián 1969***

## ARKIBIDEA

IRAKURLEARI ... .. 9

### PAPEREAN JARRITAKO BERTSO BATZUK

Ezperantzarik gabeko amodioa ... ..	17
Dohaina eta lana ... ..	20
Baigorri ... ..	25
Xalbador bizikletan ... ..	26
Baigorri'ko jaun erretorari ... ..	30
Ene errekontrua ... ..	35
Lukaz adizkideari ... ..	38
Pertsuz agur bat ... ..	42
Kennedy presidenta zanari ... ..	45
Aldude'ri ... ..	48
Errexil zenari ... ..	51
“Agur bihotzez...” ... ..	55
Etxean ... ..	58

### SAIOETAKO GAI-BERTSO BATZUK

Gernika'ko arbolari agurra ... ..	67
Ameriketarat partitzea ... ..	68
Orreaga'ko Ama Birjinari otoitza ... ..	70
Adixkide ona ... ..	72
Amaizuna ... ..	74
Ortz-adarra ... ..	76
Hazparne herriari ... ..	78
Mingaña (Mihia) ... ..	81

## SAIOETAKO OFIZIO-BERTSO BATZUK

Xahakua ta kaikua ... ..	85
Senar-emazteak ... ..	88
Artzaina ta otsoa ... ..	92
Ezkondua ta donadua ... ..	97
Esneketaria ta ostalerra ... ..	102
Jaun mera ta erretora ... ..	107
Idortea ta euri-soberakina ... ..	112
Xalbador ihiztari ... ..	116
Hogoi urtetan bezala ... ..	121
Nekazaria ta eiztaria ... ..	124
Aita-semeak ... ..	128
Aita ta sui-gaia ... ..	133
<b>IZTEGIA ... ..</b>	<b>139</b>

## IRAKURLEARI

Xalbador bertsolaria, izen-deituraz Fernando Aire dana, Urepel'eko Xalbadorrena deritzaion etxean jaio zan, 1920'garren urteko Garagarrillaren 19'an. Jaio-tetxeari zor dio, beraz, bertsolari-izena.

Xalbador zein dan, zenbat plazetan kantatu duan, zenbat euskaldunek entzun izan dioten, zenbat bertso loratu diran bere ezpañetan da abar, ez gera esaten asiko. Zertarako? Agian ezta izango Bidasoaren bi aldeetan Xalbador ezagutzen eztuan edo aren aitamenak entzun ez-tituan euskaldunik.

Auxe bakarrik adierazi nai nuke: Orain-daño Bidasoaren bi aldeetako bertsolariak alkarrengandik berezita bizi izan dira; etzuten alkarrekin artu-emanik, etzuten alkarrekin kantatzen. Badakigu Txirrita ta Gaztelu-ta, noizean bein bada ere, ibilli izan zirala beste aldean kan-



tuan, oso aldi gutxitan ordea. Alare naikoa egin zuten garai aietarako.

Xalbador eta Mattin izan dira Bidasoaren bi alderdiak bertsolaritzarako josi dituztenak. Ta emengoak ere era berean saiatu dira lan orretan. Len ez bezela, orain angoak onera eta emengoak ara, eten gabeko jardunean ari zaizkigu. Ezta izango euskeraren onerako ori zer mesede dan ikusten eztuanik.

Bañan Xalbadorren ori ta beste merezimentu asko alde batera utzita, irakurleari itz bi egin nai nizkioke, liburu au nola egiña dan esanaz.

Liburuak iru zati ditu: Lendabizikoan Xalbadorrek paperean idatzitako bertsoak bildu ditugu. Oietako batzuk *Herria* asterokoan argitaratuak ziran, beste batzuk *Gure Herria* illerokoan, eta gañerakoak argitaratu gabe zeuden eta Xalbadorren eskutik jaso ditugu.

Bigarrengean, Xalbadorrek saioetan jarritako gai edo suietaz kantatutako zenbait bertso sartu ditugu. Bertso oiek magnetofonotik kopiatuak ditugu, noski.

Ta irugarrenean, Xalbadorrek zenbait saiotan kantatu izan dituan ofizioko bertsoak. Olakoak lagun batekin kantatzen

dira, ta geien-geienetan Mattin izan da Xalbadorren bertso-laguna, liburu onetarako aukeratu ditugun jardunetan. Bertso auek ere magnetofonotik ditugu.

Nik ez nuke iñola ere esango Xalbadorren bertsorik onenak liburu ontan daudenik, bañan ezta ere txarrenak. Emen Xalbadorren bertso batzuk bildu nai izan ditugu; Xalbadorren kantu-lanaren erakuspen bat egin nai izan degu; besterik ez. Esan bearrik ere ezta, bat ez-ezik, milla liburu ere osatu zitezkeala Xalbadorren bertso guziak batuko balira.

Bidasoa'z onuzko aldeko euskaldunik geienak ez dituzte ulertuko Xalbadorren itz asko. Eragozpen ori kentzearren, liburuaren bukaeran iztegitxo bat jarri degu, Baxenabarre'ko zenbait itz emen nola esaten diran adieraziaz.

Doñuen lana, berriz, Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak egin dute, magnetofonotik Xalbadorren kantua entzunda. Doñu oietako batzuk ezagunak dira, bañan, bertsolariak oi dutenez, Xalbadorrek ere pixka bat aldatzen ditu. Orregatik, emen Xalbadorren gisan jarzea komeni zala pentsatu degu.

Liburu ontarako bildu diran bertsoak,

Xalbadorri erakutsi dizkiogu inprentara baño len; baita Mattini bereak ere. Ta biak an da emen inprentaren okerrak eta magnetofonotik kopiatu dituanarenak zuzendu dituzte.

Bañan orain baño len ere argitaratu izan da Xalbadorren bertsoarik. Gu oroitzen geranetan, olako lau liburu daude, lauak Bertsolari-Txapelketa liburuak: 1960/XII/18'ekoa, Zarautz'ko *Kulixka-sorta'n* argitaratua; 1962/XII/30'ekoa; 1965/I/1'ekoa ta 1967/VI/11'ekoa, iru auek *Auspoa'n* argitaratuak.

Ta Xalbador zer sentimentutan zan liburu au prestatzerakoan? Aspalditik esana genion aren liburua egiteko asmotan giñala. Etzuan ezezkorik eman. Ta bertso batzuk ere biali zizkigun.

Liburua osatu ta gero Xalbadorrengana joan giñan, eta bertsoak irakurri ondoren bere barrengo berri eman zigun: Alde batetik liburua egitea nai zuala, bañan bestetik beldur eta ahalge zala. Ta geienetan bigarren sentimentu ori nausitzen zitzaiola barrenean. Liburua egin ondoren pozik zegoala, bañan, guk beartu-ezean, etzuala berak bakarrik libururik egin izango. Ta, ain zuzen, orretxegatik, ia







gogoaren kontrako liburua dualako, *Ezin bertzean* jarri nai izan dio izena.

Barkatu, otoi, Xalbador maite, lan onetan naigaberik eman badizugu, bañan, egia esan, ez det uste Euskalerrriak beintzat oraingo ontan guri zer barkaturik daukanik...

A. Z.

## **PAPERETAN JARRITAKO BERTSO BATZUK**

# ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA



1/ Amodioa gauza tristea,  
bihotzen higatzailea,  
guziz enea bezala bada  
esperantzarik gabea;  
gizonarentzat hau baino malur  
handiagorik bada?  
Ikusten eta ezin eskura  
maitatzen duen lorea!...  
Onela bizi baino aunitzez  
hobe litaike hiltzea!

2/ O, Jainko ona, zendako bada  
egin nauzu hoin maluros,  
begien bixtan izar eder bat  
ezarri daitzulakotz,  
ikusi orduko maite nuena  
nik ditudan indar oroz?  
Harek ordainez ez du enetzat  
ez begi eta ez bihotz...  
Nehoz ikusi izan ez banu  
hobeko nuen ondikotz!

3/ Oi, ene maite ezin ukana,  
zoin ziren xarmagarria!  
Maite dut zure begitartea,  
maite zure boz eztia,  
halaber zure irri gozoa,  
zure izate guzia;  
zuretzat baizik ez dut begirik,  
zare ene iguzkia,  
gau eta egun zuri pentsatzen  
deramat ene bizia.

4/ Martxoko hormak galduko duen  
lore pollit goiztiarra,  
ta eihartzera bortxatua den  
aizeak hautsi abarra;  
ene bihotza ez ditaikea  
gauza horier konpara?  
Nehoiz enea ez da izanen  
maitatzen dudan izarra,  
hartaz oroituz, maiz etortzen zaut  
nigarra begietara.

5/ Aitortzen dautzut, ene maitea,  
goiz aski banakiela  
etzintaizkela enea izan,  
bertze batentzat zinela;  
bainan halere maitatu zaitut,  
ez bainezaken bertzela;  
ene bihotza bizi naizeno  
izanen zaizu fidela,  
zuretzat bizi ez bainitaike,  
zuretzat hil nadiela! (1)

---

(1) *Gure Herria*, Baiona, 1952, 115'gn. orri-alde.



## DOHAINA ETA LANA

*Airea: «Agur, adixkidea,  
Jainkoak egun on...» (1)*

1/ Agur eta ohore,  
Ahetze'ko Mattin!  
Hea non bizi ziren  
nahi nuke jakin;  
ez gira aspaldian  
egon elgarrekin,  
egun gogoa zeraut  
zure alderat jin,  
hurbilago bazintut  
banuke atsegin.

2/ Garelakotz lagunak  
eta elgar maite,  
adixkide xaharrak  
girela diote;  
bainan xaharragorik  
nunbait baditaike:  
guk elgar ikusirik  
lehengotz, nik uste,  
aurten beteko ditu  
bederatzi urte.

---

(1) Ikus: *Mariya*, 89'gn. orri-aldean; *Kantuz*, 67'-garrenean.

- 3/ Geroztik izan zaitut  
adixkide mina,  
zureganatzea da  
ene atsegina;  
zarelakotz pertsutan  
osoki jakina,  
lagun bila naiz egun  
zureganat jina,  
biek bururatzeko  
ene etsamina.
- 4/ Errex da pentsatzea  
zonbat zaukun eder  
elgar ezaguturik  
dohain bati esker;  
etsenplu eman dugu  
batzuer ta bertzer,  
zonbait pertsu kantatuz  
eskoin eta ezker,  
lan bereko lehia  
eman nahiz gazter.
- 5/ Bainan debaldetan da  
gure entsegua,  
gazteak bertz'alderat  
hartu du plegua:  
zinemetan ta dantzan  
uda ta negua,  
iduri sekulako  
duela galdua  
gure aintzinekoen  
kantuko gostua.

6/ Koplariak metaka  
ziren lehenago,  
bihi bat ere ez da  
sortzen gehiago;  
gauza hori ikusiz  
gogoetan nago,  
aintzina joanago  
eta tristeago,  
pertsulari-arraza  
gutan den akabo.

7/ Jainkoak ematen du  
zonbaiti dohaina,  
nola guhauri ere  
baitauku emana...  
Nork daki hazi hori  
nun dagon eraina?  
Miatu behar laike  
ahal bezain barna,  
lur hoberenak ere  
baitu bere lana.

8/ Oroit naiz egun batez  
senditu nuela  
dohain berezi hori,  
Mattin, zuk bezala;  
hasi nintzan artoski  
lantzen bereala,  
bainan gelditu banintz  
uzkur ta gibela,  
segur naiz pindar hura  
ilaunduko zela.

- 9/ Ez da jorratu behar  
ez den landarerik,  
lurrean heldu denik,  
ez eta bertzerik;  
gaur ere jiten daike  
landare hartarik,  
bainan deus ez dezake  
hark bere baitarik,  
jabeak ez badio  
emaiten artarik.
- 10/ Zonbaitek uste dute,  
sortuz geroz behin,  
bihia segur dela  
hazi onarekin;  
ez badugu laguntzen  
handi ta ont dadin,  
landare hoberena  
galduko da berdin;  
uzta nahi duenak  
behar du lan egin.
- 11/ Huna kantuz emanak  
nik zonbait abisu,  
konprenditzeko badu  
jendeak askitsu;  
gero're izan dadin  
kantu eta pertsu,  
Jauna, zuk otoi zerbait  
zerutik egizu,  
gure behar orduen  
berri baitakizu...

12/ Nik zerbait erraiteko  
aldia zen egun,  
Mattin, zurea ere  
ez ahal da urrun;  
ez baizaitut ikusten  
gehiago nehun,  
urrunetik bederen  
nahiko dut entzun  
ene gaurko suietaz  
zer pentsatzen duzun. (2)

---

(2) *Herria* asterokoa; eztakigu zein egunetakoa.

## BAIGORRI

- 1/ Eskual-herri guziko  
xoko pollitena,  
zu zare, zu, Baigorri,  
ene maiterena,  
kantari, pilotari,  
oro dituzuna,  
eskuara maiteari  
fidelik zaudena.
  
- 2/ Beha zure umeak  
zoin xintxo dabilzan,  
astean lanean ta  
igandez elizan;  
Nafarroa gaineko  
mendien gerizan,  
zure kaskointzerikan  
ez ditaike izan.
  
- 3/ Igande arratsaldez  
zoin den zoragarri  
Baigorri'ko gazteak  
plazan pilotari,  
handik etxerakoan  
eskuaraz kantari,  
etsenplu har dezagun  
zu baitan, Baigorri. (1)

---

(1) Xalbadorrek eskuz idatzitako orri batzuetatik.

## XALBADOR BIZIKLETAN



- 1/ Hemeretzi mende eta  
berrogoi eta bateko,  
suieta ez da errea  
aipatu gabe uzteko;  
publikatzea bere gustuz  
dakienari doako,  
pertsu hauetan zertaz den kausa  
dautzuet esplikatu.

2/ Entzun duzue engoitik  
ixtripu horren omena:  
nor den da bizikletatik  
Okoz'en erori dena;  
orai artean ene ustez  
ziklista nintzan lehena,  
bainan ardura tronpatzen da  
sobera ausarta dena.

3/ Beraz aurtengo urteko  
Buruilaren lehenean,  
Donibane'tikan goiti  
arratsalde apalean  
airos heldu nintzalarikan  
bizikletaren gainean,  
Luzifer Okoz'en guardian  
zagon bide-bazterrean.

4/ Erran dezadan Birjina  
Maria ere han zela,  
ni pasatu lanjerrean  
galdua nintzan bertzela;  
ene maxinan murruer buruz  
juanki tximixta bezala,  
uste bai nuen heien artean  
betikotz sartzen nintzala.



- 5/ Zorionez izan dira,  
ikusiz ene manera,  
bihotz oneko jendeak  
jinak ene altxatzera;  
erremersiatzen zaituztet  
ahalaren arabera,  
hil ondoan har zitzaitela  
Jainkoak bere aldera.
- 6/ Enetzat oren goxoa  
hau etzitaken nehundik,  
lurrean zabal-zabala  
ukaldiaren ondotik;  
ezagutza faltatzen ari,  
tormenta lotu burutik,  
memento batez uste nuen  
baninduala mundutik.
- 7/ Maxina hunek merezi  
duenaren araberan,  
jabeari behar diot  
orai kontseilu bat eman:  
goiti ez du kurritu nahi,  
ezin geldi gain-beheran,  
hautsi errota moldatu eta  
sartzen ahal duk antxeran.

8/ Behar derait aitortu  
izan dukala tupeta,  
lagun bati sakatzeko  
hik holako estrumenta;  
ala egin duk horren gainetik  
lurrerat erori eta  
hirezat eginen zuela  
Xalbadorrek testamenta?

9/ Nahiz ez diren agrados  
holako errekontruak,  
dena den ez nau garhaitu  
aldi huntako guduak;  
ene ganik entzun dezala  
notari mila debruak,  
oraiko aldian oraino  
zerra ditzan liburuak.


10/ Pertsu hauk ezarri ditut  
arras omore onean,  
guziek kanta ditzaten  
publikatzen direnean;  
etsenplu bat hainitzendako  
bada denbora berean,  
jakin dezaten nola ibil  
tresna horien gainean. (1)

---

(1) *Herria* asterokoan, ez dakigu zein zenba-  
kitan.

## BAIGORRI'KO JAUN ERRETORARI

JAUN ERRETOR NAUSI J. OLHAGARAY  
KALONJEARI GUTARTEAN SARTZEKO  
25'GARREN URTE-MUGA-KARI



1/ Duela mende laurden bat  
Martxoko egun batez,  
jauna, egin izan zira  
Baigorriarren apez;  
geroztik zure kargua  
kontzientziaz betez,  
hemen zaude eta egonen  
oraino luzaz arabez.

2/ Ez daukagu ahanzteko  
egun balios hura,  
zu baino artzain hoberik  
etzitaiken eskura;  
beti izan duzu gutaz  
saminki arrangura,  
bidea xuxen emanaz  
hel gaitezen zerura.

3/ Kapablea den gizona  
obretarik ageri,  
zer laneko karra ere  
etzinuen ekarri!  
Artegian egin duzu  
zonbait-zonbait lan berri,  
zonbat gisaz aberastu  
den zurekin Baigorri!

4/ Eginbideak artoski  
bete nahiz zabilta,  
artaldeaz arta duen  
artzain onaren gisa;  
etzitzaizkizun, ez, aski  
otoitza eta hitza,  
nola berriturik eman  
ez daukuzu eliza!

- 5/ Oilandoroi'ko kapera,  
zure artzain etxola,  
ohartu zinen lurrean  
eroririk zagola;  
hura ere eman duzu,  
denek dakigu nola,  
gure uzten beirazaile  
leialki so dagola.
- 6/ Lurreratu zenez geroz  
kapera maite hori,  
horko beila baliosa  
horrekin zen erori;  
orai berriz bagoazi  
urte oroz beilari,  
hor gure uzten geriza  
galdatzeko Jaunari.
- 7/ Serora gaixoak ere,  
hain beharrak herrian,  
ginauzkanak egoitza on  
baten behar gorrian;  
hoien ezartzea ere  
sartu zaizu burian,  
merexi zuten bezala,  
beren etxe berrian.

8/ Lan da zure obrak oro  
ezartzea lerroan;  
horra hor bertze etxe bat  
seroratei-ondoan  
nexkatontzat zuk egina,  
zerbait haundi gogoan:  
hor ikusiko zutela  
etxekanderegoan.

9/ Bil-etxe maitea ere  
zuk emana da xutik,  
gaztentzat beharragorik  
herrian etzen deusik;  
ez ginakien non josta,  
non erabil solasik;  
orai badugu hautua  
hau dugunaz geroztik.

10/ Oraino zertan ez duzu  
gutaz hartu axola  
Jaunaren erakaspena  
ez galtzeko nehola?  
Burrasok beren hautua  
egiten dute hola,  
zuk eginik mutikontzat  
giristino eskola.

11/ Zer egin duzun etorriz  
geroz gure artera  
kondatzeko, balitaike  
oraino sail ederra;  
Oilandoroi'n goiti eta  
Lespartze'tik behera  
zuk berritu duzu ere  
Urdoz'eko kapera.

12/ Zure obren kantatzea  
ez daukuzu galdegin;  
geiago egin dukezu  
bainan orok ez jakin;  
badakizia oraino  
zer ginuken atsegin?  
Luzaz gure artzain gisa  
egon zaiten Baigorri. (1)

---

(1) *Herria*, 662'gn. zenb., 1963/IV/4.

## ENE ERREKONTRUA

*Airea: «Lili bat ikusi dut...» (1)*

1/ Gizona da zoroa  
ta bihotz gabea,  
barnean baldin badu  
plazerren gosea;  
arimadun batentzat  
zer egitatea  
hegaztin inozenter  
bizia kentzea!

2/ Tiroka ari denak  
uso gaixoari,  
bere burua ere  
ez du urrikari;  
usor egin nahia  
jin daike berari,  
hori gertatu zaio  
aurten Xalbadorri.

---

(1) Ikus: *Mariya*, 128'gn. orri-aldean; *Kantuz*, 97'-garrenean.



- 3/ Urrieta goiz batez,  
goizik oihanean,  
ihizin nindagola,  
harma bizkarrean,  
tiro bat eskapatu  
zait uste gabean,  
xuxen-xuxena sartuz  
zango-muturrean.
- 4/ Jainkoari eskerrak,  
hortan gelditurik,  
geiagokorik gabe,  
bi eri mozturik;  
tiroak hartu balu  
nonbait barnagotik,  
egun etzen entzunen  
kantuz Xalbadorrik.
- 5/ Tiroak hiltzen baitu  
hatzemanenez geroz,  
bederen zaurituko  
gaitu aldi oroz;  
bizi nahi badugu  
trankil eta uros,  
harma xaharra sal ta  
berririk ez eros.

6/ Harma lanjerosa da  
geiago ezina,  
ez dea alabainan  
hiltzeko egina?  
Nik ene malurrean  
egiten dut zina  
beiratuko naizela  
hemendik aintzina. (2)

---

(2) *Gure Herria*, Baiona, 1952, 114'gn.orri-alde.

## LUKAS ADIXKIDEARI

1952 urtean, Lukas adixkide batek igorri zioten Ameriketatik dirua, elgarrekin besta bat egiteko, Xalbador, Jaun Erretora, panaderoa eta eihera-zainari, eta eskerren emaitako igorri zion Xalbadorek bertso-alde hau:



1/ Ene Lukas maitea,  
zer bihotza duzun  
gutaz arta hartzeko  
izanik hoin urrun!  
Beldurtzeko da Eskual-  
herrian ez dugun  
zu bezalakotarik  
bi miletan ehun.

2/ Haragia ausarki,  
herriko ogia,  
mugaz bertze aldetik  
karri edaria;  
pare gabea zela  
da egi haundia  
guk zure diruekin  
egin bazkaria.

3/ Beti orroituko naiz  
ikustate hortaz,  
ene lagunak ere  
kontent ziren arras;  
denek maiz giniola  
«Gizagaixo Lukas!»,  
han etzen egun hartan  
zu bertzerik eskas!

- 4/ Musean iragan da  
gero atsaldea,  
nik laguntako nuen  
ogi-egilea;  
Aguxtinek Battitta,  
gure abadea,  
ez idurian hauxe  
zer xori-parea!
- 5/ Gezurrak haizu ziren,  
hori betikoa,  
zaharrek inbidoa  
ta guk hordagoa;  
nahiz denek berdintsu  
ginuen jokoia,  
gaztek galdu dugula  
erran gabe doa.
- 6/ Holaxet iraganik  
uros atsaldea,  
han berean jin zauku  
afal-tenorea;  
berriz jan eta hartu  
etxeko bidea,  
zuretzat ezagutzaz  
bihotza betea.

7/ Etxeko bide hortan  
ez ginazan gaizki,  
Joanes, Aguxtin ta ni,  
hiru ginen naski;  
askotan ixilago  
joan dira zazpi,  
eta bide guzia  
ez ginuen aski.

8/ Lagun on horiekin  
zinez laketu niz,  
orok omorea on  
kantuz eta irriz;  
oi, egun eder hori  
berrituko balitz,  
zuk nahi duzunean  
gu prest gira berriz. (1)

---

(1) Bertsoak eta aurreko adierazpena ere bai,  
Xalbadorrek bialdutako eskuz-idazki batzuetatik.

## PERTSUZ AGUR BAT

1951'garren urteko Abenduaren 18'an,  
Jean Saint-Pierre apezpiku jauna hil zen  
Baiona'n.

Xalbadorrek pertsu hauek jarri ziz-  
kion:

1/ Eskual zeruko izar argi bat,  
hanbat behatu duguna,  
zinen, Saint-Pierre bertutetsua,  
apezpiku eskualduna,  
bihotz handiko gizon zuzen bat  
zintzo eta jakintsuna,  
lorietan so ginagokola  
bixtatik joan zaukuna.

2/ Egia dea ez ditugula  
entzun behar gehiago  
zure hitz sustengatzaileak?  
Ez diot sinets oraino...  
Egia dea zure eskua  
lokartu dela betiko?  
Etzaitugula hor gehiago  
bidea erakusteko?

3/ Bai, egia da, ez da dudarik,  
utzi gaituzu ba, jauna,  
egiazko apezpiku ta  
gizona izan zarena;  
bainan hartu bazaitu ere  
Jainko onak beregana,  
munduan ez da ezeztatuko  
zure oroitzapena.

4/ Zure mintzaldi xoragarriak  
zonbat ditugun miretsi,  
ta zonbat zaitugun maitatu  
Jainkoak berak badaki!  
Zutan herriak zuen argia  
zurekin zauku itzali,  
zure joaiteak egin ziloa  
nork behar dauku estali?

5/ Maite zinuen Eskual-herria,  
maite eskualdun guziak,  
ohidurentzat bazinituen  
sendimendu bereziak;  
indar handiak atzeman ditu  
zutan gure flakeziak,  
oraino ere ez diot onar  
nola gaituzun utziak!



6/ Haurrak gaztexko munduan utziz  
hil den aita baten pare,  
gu zure behar handitan eta  
itzali zira zu ere;  
zertako bada zure begiak  
betikotz hetsi dirade  
hanbat gogoan zintuen gauzak  
obratzen ikusi gabe?

7/ Orok hiltzea segurra dugu  
behin sortzeaz geroztik,  
nehor ez da baztertzen ahal  
heriotzeko ordretik;  
zu ere, Jainkoak deiturik,  
joan baitzira mundutik,  
ikusi arte, adixkidea,  
beha zaguzu zerutik! (1)

---

(1) *Gure Herria*, Baiona, 1952, 12'gn. orri-alde.

## KENNEDY PRESIDENTA ZANARI



- 1/ Kantari bera ez ditaike ar  
beti alegrantzietan,  
bihotzik badu parte har beza  
protsimoaren penetan;  
nik ere batto izanki eta  
goibeldua dut betbetan,  
zertaz den kausa esplikaturko  
dauzuet pertsu hauetan.

2/ Azaroaren hogoi ta bia,  
ilundu ta bereala,  
mundu guziak entzun izan du  
ihurzuri bat bezala:  
Amerika'ko president ona  
tiro batez hil dutela;  
horra Satanen herrazko lana,  
ezin ditaike bertzela.

3/ Gisa hortako berri tristeak  
zer latza duen emaiten!  
Aurrerapenen mendean ere  
gaixtakeriak irauten;  
gaitz pentsurik ez dugunak ere  
guhaurren baitan sar gaiten:  
gizonaren bizia zonbaitek  
zer estimutan daukaten!

4/ On izaitea kaltegarri da  
orai hemendik aintzina,  
onaren gatik zuri, Kennedy,  
dauzute lana egina;  
jendeak aski erakutsi du  
zutaz hartu duen mina,  
etzen hoinbertze nigar entzunen  
gaixtoa izan bazina.

5/ Orai engoitik ezin ditaike  
egina dena barrea,  
Satanek bere lan higuina du  
bertze aldi bat betea;  
inozentaren hiltzaile dena  
da zinez dohakabea:  
beretzat ez du deus onik eta  
hoinbertzerentzat kaltea.

6/ Bizia bizi, izanik ere  
haundi edo erromesa,  
edozoineri haren kentzeak  
eman behar dion lotsa!  
Presidentgoa ordain ditaike  
zonbat ere baliosa,  
ezin ordainduz gelditzen dira  
hor aita eta esposa. (1)

---

(1) Kennedy il zutenean jarriak eta Xalbadorrek idatzitako orri batzuetatik artuak.

## ALDUDE'RI

*Airea: «Lili bat ikusi dut...» (1)*

1/ Aldude'ri begira  
lorian nago ni;  
hartakotz dazkot egun  
pertsu hok eskaini,  
nola dagon izaite  
bizi bat iduri  
Sorogain'i begira,  
bizkarrez Baztan'i.

2/ Bizkarrez dago bainan  
anaia du Baztan,  
berex badaude ere  
zonbait urte hautan;  
ez daude berriz ere  
amodio faltan,  
amultsuki hartzeko  
elgar besoetan.

---

(1) Ikus: *Mariya*, 128'gn. orri-aldean; *Kantuz*, 97'-garrenean.

- 3/ Aldude'ri izena  
nork eman ote du?  
Noren asmutik edo  
nondik zaio heldu?  
Diote *Alto-bide*  
dela estakuru,  
izena eman-eta  
izana ekendu.
- 4/ Naparroa'ko ginen  
Aldude'n lenago,  
gu galdu gaituena  
penetan baitago;  
diote: *Esta casa*  
*es del Bal de Erro;*  
gezur horren sinesteko  
ez gir'aski ero.
- 5/ Herri hau geroago,  
denen arabera,  
ez español ez frantzes  
bizitzen zen bera;  
gero etsaiek jauzi  
eginik gainera,  
zuten gain hartarikan  
jautsi hoin behera.

6/ Arbolak bizi deno  
baduke itzala,  
beraz balaike fruitu  
ekar dezakela;  
bainan nork duk nahiko,  
nork duke ahala  
Aldude ezartzeko  
lehen zan bezala?

7/ Aldude'n, Urepele'n,  
Kintoa'n, Esnausu'n,  
dakigu badugula  
zerbait anaitasun;  
guziek gogo beraz  
hitzeman dezagun  
beti zinez egonen  
girela eskualdun. (2)

---

(1) *Gure Herria*, 1964'eko Urria.

## ERREXIL ZENARI (1)



- 1/ Mila bederatzi ehun eta  
hirur hogoi eta bortza,  
aurten gertatu zaukun malurrak  
erdiratu daut bihotza;  
ene nahia bete dadien  
Jaunari diot otoitza:  
hortaz penetan dauden guziak  
pertsutan ditzagun goza.

---

(1) Errexil bertsolaria, Gipuzkoa'ko Errezill'en  
jaio ta Lapurdi'ko Urruña'n bizi ta il zana.



- 2/ Aire tristian kantatuko dut,  
tristeia baitut suieta,  
heriotzeak egin-arazten  
dauku zonbait gogoeta;  
Errexil gure lagun maitea  
mundu huntarik joan eta,  
behin betikotz ixildu zauku  
gure errexinoleta.
- 3/ Azken aldikotz kusi ginuen  
iragan Salbatoetan,  
Eiaralarre herri maitean  
kantatu ginuen betan;  
ordukotz ere bertzelatua  
ageri zen koloretan,  
bainan nork erran holako gaitzik  
bazagola haren baitan?
- 4/ Handikan laster jakin ginuen  
zaukan gaitzaren berria,  
mundu guzia suntsitzen duen  
setio lotsagarria;  
horra denbora gutiz sofrituz  
hauts bihurturik jarria  
berrogoi eta zazpi urteko  
gorputz espantagarria.

- 5/ Etzen bakarrik gorputzez eder,  
ederra zuen arima,  
lagun goxoa eta leiala  
etzaiken aski estima;  
guzien kantuz xoratzea harek  
zuen bere atsegina,  
Eskual-herriak noiz izanen du  
beste bat haren berdina?
- 6/ Goizetik arrats berdin hari zen  
beti kanta eta kanta,  
besteak dudan balin bazauden  
zer hots-emaile xarmanta!  
Ez zen osoki trebea bainan,  
perfetik nehor ez baita,  
sekulan ez du nehor sumindu  
ele gaixto bat erran-ta.
- 7/ Munduko gauza segurrena da  
denak hil behar duguna,  
gizonak hori pentsatu gabe  
ez beza pasa eguna;  
bainan halere bada gauza bat  
deitoragarri zaukuna:  
bere adinik hoberenean  
joaiten kustea laguna.

8/ Errexilekilako denborak  
izan zauzkigu laburrak,  
akabo haren pertsuak eta  
haren behako samurrak!  
Eskual-herria dolutan dauka  
zure galtzeko malurrak,  
laster ordaina eman bezauku  
estali zaituen lurrak!

9/ Zuk ere triste kantatu duzu  
maite zombaiten joaitea,  
eta guk ere egun zuretzat  
daukagu kantu tristea;  
mundu huntako denbora dugu  
guk ere laster betea,  
egizu, otoi, guretzat otoitz,  
ikusi arte, maitea! (2)

---

(2) *Herria*, 799'gn. zenb., 1965/XI/25.

## «AGUR BIHOTZEZ...» (1)

Aldi batez Oñatibia jauna egon zen hemen, Xalbadorri galdatzen egun guzietz bortz minutoz radiotik bertsoak kanta zitzan. Bainan aments hori ez zen bururatu ahal izan. Bi egunendako preparatu zituen: lau, egun bakotzeko:

1/ Agur bihotzez, Eskual-herriko  
anai-arreba maiteak;  
baldin plazerrik egiten badu  
Xalbadorren entzuteak,  
gertatzen zaizte fabore hortaz  
gain-gaineraino beteak:  
radio hunek horretarako  
zabaltzen ditu atea.

2/ Neroni ere inguratu nau  
berri haundi hunen garrak,  
baldin laguntzen banau segurik  
izpirituko indarrak;  
kantaldi batzu egun guzietz  
hemen tut egin beharrak,  
egun batzutan berriak eta  
bertze batzutan xaharrak.

---

(1) Bertsoak, eta adierazpena ere bai, Xalbadorrek eskuz idatzi ta bialduak.

3/ Nola gaur dugun lehen eguna  
berritik hasiko gira,  
eta oihu hau igorriko dut  
frantzes eskualdun herrira:  
pertsulari gazter naiz mintzo,  
gure ordainak nun dira?  
Hala hemengo pertsularitza  
gu hilez geroz fini da?

4/ Ikus dezagun Gipuzko'n nola  
lauzkatua den Basarri,  
Bizkaia'n ere pertsularia  
trunbilka bada nun-nahi;  
Naparra ere hor etzaukuia  
erne-ernea atzarri?  
Eta lo daude Baxenabarre,  
Xubero eta Lapurdi!

\* \* \*

Bigarren egunerako segida:

1/ Lehenekoan koplari gaztez  
hasi ginuen solasa,  
aintzinaxago ereman gabe  
orai ez naiteke pasa;  
ez dut sinesten oraino ere  
galdua dela arraza,  
segurago da gazten aldeko  
nahikeria eskasa.

2/ Zonbaitek berdin senditzen dute  
beren baitan dohain hura,  
bainan ezin dute ohildu,  
oi pentsamendu ahula!  
Iduri guri eginak prestak  
ahorat eldu zauzkula,  
indarrik gabe nehor deustarat  
ez da helduko sekula.

3/ Lan hunek ere berekin dauzka  
bere gisako nekeak,  
denbora ta lan galdegiten du  
edozointan ikasteak;  
ez pentsa ere arras perfetak  
garela beti besteak,  
ahal bezala, huts edo kausi,  
entsea zaizte, gazteak!

4/ Gu hemen gaindi hiru edo lau  
besterik gabe gabiltza,  
langile hautarik ez duen  
lantegia da murrizta;  
ahal duenak sasi-petikan  
landare onak bil bitza,  
bertzela ez da luzarakoa  
hemengo pertsularitza.

## ETXEAN (1)

### ALABAREN SORTZEA

- 1/ Esposatu ta hurran urteko  
Maiatzaren lehenean,  
alaba pollit maitagarri bat  
sortu da gure etxean;  
emazteari erran diot hau  
bere besotan zartzean:  
Horra, lore berri pollit bat  
bada gure baratzean!
  
- 2/ Alaba ona, zu izatea  
balin banuen merezi,  
zu gal beldurrez askotan zeraut  
nigarra begira jautsi;  
zu gabe orai ez nuke nahi  
minuta bat ere bizi,  
zure ama lagunt zazu ta  
otoi aita ez ahantzi!

### ALABAK AITARI

Bertze lau bertso hauek ez dire Xalbadorrek eginak, bainan hunen alaba Henriettek bere aitari ezarri zizkionak bere bestako.

---

(1) Sail ontako bertso guziak, Xalbadorren eskuz-idazkietatik artuak dira.

1/ Aita maitea, aste bat badu  
iraganik zure besta,  
berrogoi ta bat urte ein tuzu,  
oi mende hunen ximixta!  
Zure alabak ez du bertsotan  
izain zure errekesta,  
halere bihotzaren barnetik  
zu ohoratzeko prest da.

2/ Hemezortzi urte baditu  
mundurat jina nizala,  
«Lore bat baratzean badugu»  
dakit erran zinuela;  
alabainan ez ditaieka  
gauza horier konpara  
aberastasun hori jitea  
aita baten bihotzera?

3/ Ala aita, ala ama,  
izen horien ederra!  
Sortu eta lehen solasak  
«Aita! Ama!» ditu haurrak;  
geroztik entzun dut ainitzetan  
zer den aitaren beharra,  
zu ez bazintut, egin nezake  
segur goxoki nigarra!



4/ Ez dea bada estimagarri  
aita baten izaitea?  
Osagarri, zorion eta  
daukatan jakitatea  
oro aitari esker baititut,  
zor diot nere partea;  
hitzemaiten dut bizi naizeno  
zuretzat otoitz eitea.

#### AITONA GAZTEA





«Orra, beraz, alabak amatzeko bidean zela anuntziatu zaukunean, pozaren pozez jarri nituenak.

Artetik esan behar dizut bertso auek egin ala gipuzkoeraz jarrita daudela; zerbait olatsuko nere artean ibiliak nituen, eta, Ondarrabi'n izan nintzan batez, ango jendeari kantatzeko gogoia etorri eta, haieri entendiarazteagaitik, onela kantatu nituen. Ondo atera zitzaizkidala iduritu, eta geroztik hauek dira konda.» (1)

*Doñua: «Sor lekua utziz geroz...»*

---

(1) Xalbadorren eskutitz batetik.



1/ Beti ez gaitzen higa  
tristeak diren gauzetan,  
zorion-tokia ere  
bada gure biotzetan;  
alabak esan deraukunean,  
aidatu nintzan pozetan,  
zorionean arkitzen zela  
haur baten esperantzetan.

2/ Tentatzen ari zerauzkit  
haurrak eta emaztea  
aitondu naizela, bainan  
ni naiz aitona gaztea;  
ez ote da, bada, pozgarri  
gauza hunen ikustea:  
arbola bat eihartu gabe  
frutu ematen bestea?

3/ Orai igerika gaude  
loriazko erasoan,  
fede guzia emanik  
datorren aingerutxoan;  
nik biotzean atsegin ainbat  
ur ez dago itsasoan,  
a zer bertsoak, datorrenean,  
bera harturik besoan!

4/ Ez gaiten gehiegi poztu,  
oraino bidean baita,  
ez dela bururatuko,  
ai, hori eni ez aipa!  
Aingerutxoa, zure zai daude  
hemen ama eta aita,  
eta heietaz bestalde ere  
izango dezu nork maita!

## BI IHIZTARI FAMATU

Bertso auen egillea Xalbadorren bigarren alaba da, Marie Helene, senideetan gazteena, amabost urte dituen. Bere anaiari eizera joan da mendian zebillela zer gertatu zitzaion esaten digu.

*Airea: «Dama gazte xarmant bat...» (2)*

1/ Urepel'en badira  
ihiztari frango,  
bainan ez dut ikusi  
hoin hunik oraino;  
bi lagun joan dira  
mendi gaineraino  
basurde bat hiltzeko,  
elurra bazeno,  
*tra la la...*  
elurra bazeno.

2/ Beti kurri dabilta  
oihanean gaindi,  
basurde-herrestoa  
hor nahiz ikusi:  
«Horra alan nun diren  
hantxe zombait ari!  
Ez ditugu horiek  
gaur behar hor utzi,  
*tra la la...*  
gaur behar hor utzi.

---

(2) Ikus: *Mariya*, 123'gn. orri-aldean; *Kantuz*, 104'garrenean.

- 3/ Huna nun diren hasten  
hok biak tiroka,  
behar duztela zombait  
han berean bota;  
bainan kolorez ainitz  
dira tronpatu-ta,  
kolpatuik utzi dute  
zerri bat xarmanta,  
*tra la la...*  
zerri bat xarmanta.
- 4/ Noizpait heldu zauzkigu  
deus gabe etxera,  
erranez basurdeak  
oihanean zaudela,  
urrunegi izanez  
huts egin tuztela,  
bainan ez dute erran  
zerriak zirela,  
*tra la la...*  
zerriak zirela.
- 5/ Zerria basurdetzat  
hartzekotan hola,  
ihiztari horiek  
etxean daudela;  
zuek irabaziak  
trufa zoinbait dira,  
eta ere gainera  
zerriain malurra,  
*tra la la...*  
zerriain malurra.

(31/XII/1968)

## **SAIOETAKO GAI-BERTSO BATZUK**

## GERNIKA'KO ARBOLARI AGURRA

Bertso auek 1948'eko urtean kantatu zituen Xalbadorrek, Sara'n, bertsolari-txapelketa batean. Lenengo saria izan zuen. Gaia zan Baxenabartar batzuek Gernika'ra joan eta arbolari egiten zioten agurra.

1/ Oi, ama ona bizitzen dena  
bere umetarik urrun,  
orai artean senditzen bainan  
ez dugu ikusi nehun;  
bainan huna gaur zure aldean  
amultsuki zonbait lagun,  
denen bihotzak juntatu eta  
agur bat egin dezogun.

2/ Eskual umeak ez dezake  
bere ama disimula,  
o, ama ona, sustenga zazu  
ene gogo ahula;  
badakit sortu zinen ordutik  
etsaiak izan tuzula,  
denengatikan bizi zira ta  
etzaitela hil sekula! (1)

---

(1) Xalbadorrek idatziz bialdutakoak.

## AMERIKETARAT PARTITZEA (1)



- 1/ Ezin-bertzeak ekarri deraut  
herritik hurrun joaitea,  
zer bihotz erdiragarria  
aita-ama onen uztea!  
Nigar samintsu bero batekin  
despeditu dut maitea...  
Horiek aski ez ote dira?  
Oi, gaixo Eskual-herria!

---

(1) Xalbadorrek eskuz idatzita igorriak. Bertso-  
-saio batean jarritako gaia omen dira.



2/ Eskualde ona dela diote  
Amerika'ko xokoa,  
gerokoaren segurtatzeko  
ni ere harat banoa,  
egun nigarrez hemen utzirik  
ene sort-herri gaixoa;  
gorputzez hurrun joanki naiz, baina  
hemen uzten dut gogoa!

## ORREAGA'ko AMA BIRJINARI OTOITZA (1)

«Orai nik esango ditudan bertsuak duela lau urte Luzaide'ko plazan entzunik dizkiot. Doñu sendigarri eta aire tristean emanak dira. Aitortzen dut negar malkoak bazirela plazan.

Gaia: Xalbadorri haur bat kolpatu dio otomobilak. Frango gaizki da. Aita badijoa Orreaga'ko Ama Birjina otoiztera. Lau bertsutan Ama Birjinari otoitza.

1/ Mundu hunetan bizitzen dena  
ez da leku ederrean,  
beti kezketan gabiltza eta  
beti gaude lanjerrean;  
ni haurrekilan ain goxokian  
bizi nintzaren artean,  
batto goizean otoak zauritu  
dauku bide-bazterrean.

---

(1) Adierazpena ta bertsoak: Jose Maria Satrustegi: "Xalbadorren ohoretan", 1967/VII/30<sup>ean</sup> Ernani'n emandako itzaldia, *Gure Herria*'n 1967/XI'an argitaratua.

2/ Pentsa zazue aita batentzat  
hau ez dela atsegina,  
ezin jasanez hemen daukat  
ene bihotzeko mina;  
oi, haur maitea, ene ustean  
ene zoriontzat jina,  
ez dadien gal otoizten zaitut,  
Orreaga'ko Birjina.

3/ Bizi huntarik ez da bertzerik:  
egun eta gau guduan;  
hauxe da pena ta naigabea  
gaur ere ukana duan;  
Ama Birjina, zu boteretsu  
hor baitzeraude zeruan,  
egizu ene haur maite hori  
bizi dadien munduan.

4/ Nehondik ahal balin baduzu  
zure Semeain bitartez,  
lagun nezazu estura huntan  
tronpa ez nadien atez;  
balin hola beharrak badira,  
zerbait gisan gerta bitez:  
nahiago dut nihaurek hilik  
ene semearen partez.

## ADIXKIDE ONA (1)

Eguberriz Aldude'n egin zen pertsularien pestan, Xalbadorri gai hau eman zioten: «Zoin dira lagun batean kausitu nahi zinuzken kalitateak?» Huna zer pertsu-alde pollita atera zuen:

*Airea: «Lurraren pean...»*

1/ Oi, adixkide onak tuztenak  
dirade gizon urosak;  
adixkideak ezagutzen tu  
bere lagunen bihotzak;  
harek ez ditu ez berexiko  
ez beroak eta hotzak,  
penarekilan ikusten ditu  
bere lagunen ez-ontsak,  
eta barkatzen ere badaki  
guk egiten tugun hutsak.

---

(1) Bertsoak eto adierazpena: "Herria", 706'-gna. 1964/II/6.

2/ Adixkideak kalitateak  
izan baitezazke mila:  
zur'inguruan zu beti ontsa  
kusi beharrez dabila,  
berdin hasarre izana gatik  
zuretzat beti umila,  
mintzatu behar baluke ere  
egonen ixil-ixila...  
Bainan delako adixkidea  
nun ote ditaike bila?

3/ Sortuz geroztik beti nabila  
ni ere hor bidez bide,  
eta jartzen naiz aipatzen dugun  
adixkidearen alde;  
berdin bilatzen dugu ba nunbait  
bainan guziak debalde  
pasaturikan ere zonbait goiz  
bai eta zonbait atsalde;  
nahiko nuke nihaurek izan  
horrelako adixkide!

## AMAIZUNA (1)

Beste hauek izango dira, ni umezurtza,  
amaizunari itzegitea gaitzat artu ta jarri-  
takoak.

1/ Mundu hunetan ez naiz luzaro  
gozatu ama maitean,  
sortu orduko arkitu bainaiz  
zoritxarreko atean;  
ta bere ordain utzi zaitu zu  
amak zerurat joaitean;  
dohakabe naiz, laztan nezazu  
zure besoen artean.

2/ Badakit ez nauzula ekarri,  
andre, zure sabelean,  
Ama Birjiñak ere ez gaitu  
iñoiz ekarri berean;  
halere haren umetzat gauzka  
bere biotz zabalean,  
zuk ere ala ar nezazu ni  
Jainkoaren izenean.

---

(1) Bertsoak eta adierazpena, Xalbadorrek idatzi  
ta bialduak.

3/ Gure Jainkoak bidaltzen digu  
zerutik ainbat abisu,  
zorigaixtoak jota daudenez  
ager gaitezen amultsu;  
haren aurrean, ume ta ama,  
arkitzen gera ni ta zu,  
maitatzen ahal ez banauzu're  
erruki izan nezazu!

## ORTZ-ADARRA (1)

Ondotik datozen hauek, berriz, dira Donostia'n (2) Erroma'ko zubia aitatu zautatelakotz egin nuen okerra gogortuaz, biramonean, etxerat nindualarik, berriz haste balitz nolatsu kanta neza-kean hasi ta jarriak.

1/ Ortz-adar ori agertzen zaiku  
bi erasuren tarteko,  
bere zerutar koloreakin  
zillarrezko ta urrezko;  
edertasunez ez dakiok  
begiratu bekoz-beko,  
mingain urrea bear litzake  
ber'hartaz hitzegiteko.

---

(1) Bertsoak eta adierazpena, Xalbadorrek idatzi ta bialduak. Gipuzkoa'n *Erroma'ko zubia* esaten zaionari, Baxenabarre'n *ortz-adarra* esaten diote.

(2) Bertsolari-Txapelketan, 1967/VI/11'an, (*Auspoa*, 67, 46'gn. orri-aldean).



2/ Maizenik udan ikusten degu,  
etzaio gustatzen negu,  
mirari bat or ez ikusteko  
itsu zoroak gera gu;  
esan litake aingeru danak  
bertan daudela testigu;  
zerua zer dan erakusteko  
Jainkoak bidaltzen digu.

3/ Zerbait gogortxo esaten noa,  
au bihotzaren pilpirra!  
Ene barruan sartu ote da  
ortz-adarraren dirdira?  
Erasoaren bukaerako  
seinale baldin bazira,  
eskatzen dizut, ai ortz-adarra,  
noiz zatoz Eskual-herrira?

## HAZPARNE HERRIARI (1)

Pertsularien egunean, ostatuan, bazkari-ondarrerat, eman zuten pertsu politik: denak omore onean, arralleria merke, elgar kitzikatzea maite. Bainan Xalbadorrek nahi izan zituen ere agertu Hazparne'ren alderat dauzkan sendimenduak. Huna, denak ixil-ixila zaudela, zer atera zuen:

- 1/ Zendako debru ari zerate  
pundu berekilan teman?  
Gaurko egunean behar gintuzke  
puskat goraxau ereman.  
Zendako debru balio gabe  
diren solasak guk erran?  
Hazparne'k merezi duenikan  
gaur ez baitakogu eman.

---


(1) Bertsoak eta adierazpena: *Herria*, 901, 1967/  
XI/9.

- 2/ Bazkal-ondoan gaur izan dira  
pertsu haitada beroak,  
eta Hazparne'k argi ditzala  
oraikoak ta geroak.  
Hazparne galtzen ari zaukula  
hor mintzo dira eroak,  
ez, ez, Hazparne'k oraino bizi  
ditu eskualdun erroak.
- 3/ Gure Jainkoak banatzen baitu  
behar denean grazia,  
eta Hazparne ez du oraino  
arras debalde utzia.  
Mediku on bat bada ber'ustez  
haren sendatzen hasia,  
eta mera're bere alde du,  
etxian dauka farmazia.
- 4/ Mattin, ez laike kantatu behar  
sekulan besten berririk,  
bertzen bihotzak dauden lekuan  
uzteko geldi-geldirik.  
Otoi, Hazparne, zuk erradazu  
ez duzun kusten argirik?  
Baldin Hazparne itzaltzen bada,  
ez dugu Eskual-Herririk.

- 5/ Ene bihotza agertzen badut  
ez naizazuela gaitzetsi,  
berroi ta zazpi urte baditut,  
egi erten behar hasi.  
Orai artean debaldekoa  
izan da ainitz garrasi,  
gazte maiteak, segi zazue,  
nehoiz ez zazuela etsi.
- 6/ Zonbaitek berdin erranen dute  
gu ez garela perestu,  
erabiltzen ditugulakotz  
hal-hulako zonbait jestu.  
Bainan Hazparne maitagarriak  
hortan hobenikan eztu,  
idai desberdin izanagatik  
ibil zaizte eskuz-esku.
- 7/ Gauza hau ikusiko balute  
gure arbaso lehenek:  
Len etzukean holakorikan,  
zer debru derasa hunek?  
Beren herria zain dezatela  
han sortu diren gizonak,  
irrik nehoiz egin ez dezan  
ifernuan den Satanek.

## MINGAÑA (MIHIA)

Añorga'n, 1969/VII/18'an, kantatutako bertsoak. Gaia: Iru bertso mingañari, mihiari. Gai-emale ta magnetofonoz bertso-biltzalle: Jose Maria Aranalde apaiz jauna.



- 1/ Gure Jaungoiko maite-maiteak  
baitu kristaua egiña,  
hoinbeste oni guk nehoiz itzul  
ginezokea ordaña?  
Asko gauza esan laike hortaz,  
berez hain ona da baña,  
gaizkian ez ebiltzeaz geroz  
ez da gaiztoa mingaña.

2/ Gai horrekilan eman nezazke  
nik ez dakit zonbat bertso,  
mingaña nuen erenegu ta  
mingaña ere nik atzo;  
mingañak erran izan baiteraut  
eni hainbertze hitz goxo,  
andreak ere mingañaz deraut  
maitatzen nauela oso.

3/ Gai horretatik hainbat bertze gai  
ginezake guk estali,  
eta nik diot hau erran gogo  
ainbeste gizon herbaili:  
Jeinkoak dauku mingaña hori  
ahoan eman zintzili,  
bainan ez ginuke behar nihoiz  
hori gaizki erabili.

## **SAIOETAKO OFIZIO-BERTSO BATZUK**

## XAHAKUA TA KAIKUA

Mattin eta Xalbador, Luzaide'ko plazan, 1959/VII/28'an. Bertso auek *Luzaide* aldizkarian argitaratu ziran, 1960'ngo Otsaillan. Mattin xahakua zan; ta Xalbador kaikua.





*Mat.:* Bikarioak laster egin du  
suietaren hautatzia,  
ni xahakua eman nau eta  
kaikua berriz bertzia;  
jende maitiak, ikusiko'zue  
gu bien diferentzia,  
ni xahakua deitzen naiz eta  
Xalbador arno-untzia.

*Xal.:* Mattinendako da xahakua  
eta kotxua neretza,  
Jaun bikarioak agertu du  
suiet jostagarri gaitza;  
nik deraukat hortxe esne garbi,  
honek kalte eta gaitza,  
ene axala xuri dago ta  
honen barnea beltz-beltza.

*Mat.:* Nik beti daukat preferentzia  
nere xahakuarentzat,  
eta eztakit hunek zer dion  
bere kaikuarentzat;  
nik trukatuko niokela  
hori ez dezala pentsa,  
xahaku hortan atxikitzen da  
bertsularien ezantza.

*Xal.:* Mattinek anitz erraiten dauku  
eginez gero bi trago,  
au xahakua deitzen da eta  
ni beti kaikuan nago;  
nik jauntto hori ezagutzen dut  
zuek baino lehenago,  
bi litrakua da naski bainan  
atzo bazuen gehiago.

*Mat.:* Xalbadorrek zernahi errain du  
orai xahakuarengatik,  
bainan hartarik duelarikan  
berak edaten gogotik;  
ez bide du, ez, anbertze trago  
egiten horrek kaikutik,  
anbertze esne edaan balu  
zurituko zen gargoitik.

## SENAR-EMAZTEAK

Bertso auek Luzaide'ko plazan, 1959/VII/28'an, Mattin eta Xalbadorrek kantatuak dira: Mattin, emaztea; Xalbador, senarra.

Magnetofonoz Jose Maria Satrustegi apaiz jaunak artu zituan. Geienak *Luzaide* aldizkarian, 12'gn. zenbakian, 1960/VI'an, argitaratu ziran.

*Mat.:* Jende maitiak, eman daugute  
orai suiet bat berria,  
bat bertziaren kitzikatzeko  
oraintxe da tenoria;  
bikarioak erran du eta  
senar-emazte baigia,  
urrikari da halako gizona  
etxian duen andria.

*Xal.:* Andre maitia, gizon guziak  
desohoratzen gaituzu,  
nehurriz kanpo hitz egitea  
nehorentzat ez da haizu;  
egun bederen elgarrekilan,  
etzaugu gertatzen usu,  
nik beti ongi maite zaitut ta  
emazkidazu bi musu.

*Mat.:* Ageria da urrikalduta  
jarria dela etsian,  
onbore ona ez du, ez, beti  
arratsian ta goizian;  
lanian bakan ari da eta  
bestan al duen guzian,  
barkamendua nei eskatzen du  
muxkurtzen zautan guzian.

*Xal.:* Ene andriak bizimoduak  
ez ditu ongi ikasiak,  
hunengatikan emenda laizke  
bertzen baztarrian sasiak;  
emanen dazkot arrazoin batzu  
nik orai gazi-gaziak:  
hunek aisasko gastatzen ditu  
nik nekez irabaziak.

*Mat.:* Gu nola bizi giren etxian  
esplikaturzen has giten:  
goizian mezara juaiten da eta  
gauaz betea da jiten,  
handik oihuka bortan eginda:  
«Andrea, otoi, jeiki zite!»  
Gauzaren bortxaz ikasia dut  
moxkor saldaren egiten.

*Xal.:* Ene andriak azi gaiztuak  
munduan baitu erainak,  
berak ere erten tu bainan  
entzunen ditu ordainak;  
gure etxian zikinak daude  
bai azpiak eta gainak,  
ganbaran sartzian bat hil nahi du  
pix-untziaren usainak.

*Mat.:* Errepustaren emateko nik  
idekiko dut ezpaina:  
andre gaixua mespreziatzen du  
egin nahian alaina;  
hau beti zernahi erranka,  
ni lanian ai naiz baina,  
ez dago bada ainitz ohea  
mozkor atsaren usaina.

**Xal.:** Ene falta da hau hautatu badut,  
etzaitzela asaldatu,  
bide txarrian sartu naiz eta  
orai ez naike aldatu;  
bere ofizioko lan onenak  
garbitzia ta salda tu,  
badu urte bat hunek ez duala  
zaia azpikua aldatu.

**Mat.:** Nik errepusta emanen zaitut,  
senarra, gostu-gostuan,  
andria beti izan bear baidu  
beti hola onbore prestuan:  
zaia azpikorik ez dut aldatu  
zeren ordainik eztuan,  
haren sariak nere senarrak  
uzten ditu ostatuan.

**Xal.:** Gazte denboran hau izan nuen  
nik nihauren andregaia,  
galdia nihaurek egin nion ta  
hunek laster erran baia;  
beti zikinak hortxen dauzka  
mantala bai eta zaia,  
atsetan horrekin etzateko  
gizonak behar du emai!

## ARTZAINA TA OTSOA

Luzaide'n Santiagotan kantatutako bertsoak. Gai-emaile ta bertso-biltzaile, Jose Maria Satrustegi apaiz jauna.

Gaia: Mattin, artzaina; Xalbador, otsoa.



*Mat.:* Jende maitiak, nere bizia  
ez baita beti gozoa,  
nik betan zaindu behar ditut  
etxea eta auzoa;  
nere artaldia ezin beira  
baidaukat oso-osoa,  
zeren menditik jausten baizait  
ardura debru otsoa.

*Xal.:* Enetzat ardi oro onak  
dira zahar ta gazteak,  
nahiz gostatzen zaizkon norbaiti  
azinda hoiien hazteak;  
beharrik jaten baititut nik e  
batzuek eta bertzeak,  
ardi gaixo hoitaik ez balitz nehon  
hil bai nindiro goseak.

*Mat.:* Batere ez naiz ni orai beldur  
otso zar horren beltzteko,  
zernahi gostatzen ere baizaut  
nere ardien hazteko;  
orai suiet pollita daukat  
kolpean aberasteko:  
hamarretarik batto behar dut  
otso zar hau bazkatzeko.



*Xal.:* Hunen gezurrak joan ditaizkela  
ikusten duzue xutik,  
ez da dudarik hau ez duela  
egun kontentatzen gutik;  
zuk otsuaren madarikatzen  
badaukazia burutik?  
Ez dakizia libro dugula  
hartzia dagon lekutik?

*Mat.:* Hau iduriak ere baitira  
arrano eta beleak,  
beti ikaran bizi behar du  
artaldearen jabeak;  
hauek denak bere dituzte,  
gu artzainak pobreak,  
nai nuke jakin zertako diren  
holako animaleak!

*Xal.:* Artzain hunek lo pasatzen ditu  
bere orenen erdiak,  
bainan hunek hesten tuenian  
nik zabaltzen tut begiak;  
bai, aisa dira arrapatzeko  
bakarrik dauden ardiak,  
batere hunek senditu gabe  
jan nitzazkoke erdiak.

*Mat.:* Hunek dion bezala ezta  
gero artzaina lokartzen,  
artalde maitzen delarik  
lasterko bainaiz ohartzen!  
Gaizo otsoak nai duelarik  
ez da, ez, gero asetzen,  
edo bertzenaz orai den baino  
gizenago izanen zen.

*Xal.:* Obeko duzu hemendik goiti  
artalde oi libro utziz,  
nik ez dauzut hanbatik jaten,  
zu kexatzen zira gutiz;  
zer demonio irabazten  
duzu gauza hortan ariz?  
Kusiko ziniro jan baneza  
goseak nagoen guziz!

*Mat.:* Otso gaiztua mendi-zokoan  
ardura triste da bizi,  
nahiz urrunera dituen  
ardi ederrak ikusi;  
hor berehala hurbildua da  
dena salto eta jauzi,  
baino lenguan ere zakurrek  
igorri dute igesi.

*Xal.:* Zuk ez daukazu, artzain maitea,  
kexatzeko arrozoinik,  
nik bezein triste zuk ez baituzu  
pasten neguko sasoinik;  
zendako bada hola kexatu  
arrozoin gabe gizonik?  
Nehon otsorikan ez balego,  
ez laike behar artzainik.

## EZKONDUA TA DONADUA

Xalbador, ezkondua; Mattin, donadua. Auek ere Luzaide'ko plazan, 1960'garren urteko Santiagotan, kantatuak dira. Suiet-emaile ta bertso-biltzaile, Jose Maria Sastrustegi apaiz jauna. Doñua, *Txarmangarria zira* kantuarena.

*Xal.:* Konseilatuko zaitut,  
ene lagun Mattin,  
sinisten baninduzu  
banuke atsegin;  
ni gustura bizi naiz  
andre ta hurrekin,  
ta zuk bertze hainbertze  
noiz behauzu egin?

*Mat.:* Bertsu bat botako dut,  
Xalbador, hortarik,  
kasik ernatu bainaiz  
oraintxe lotarik;  
nik ez dut deusik nahi  
andre hoietarik,  
ez naiz ezkondu-nahi  
ez baidut doterik.

*Xal.:* Alta, beti zabilta  
hemen bestaz besta,  
horren konprenditzea  
denentzat errez-ta;  
zu ere ezin zaizkela  
ezkontzeat erresta,  
bainan ez bide duzu  
hanbat errekesta.

*Mat.:* Xalbador, ari zira  
gauza hortan gaizki,  
andregaiak banuzke  
nik sei edo zazpi;  
hau karkulatzen baidut  
nik partikularzki:  
andre hoietan badela  
malurosik aski.

*Xal.:* Donado urosa're  
oraino ez da jina,  
harek ere falta du  
zonbait atsegina;  
zuk ez duzu hortako  
bokazione fina,  
hal'etzira aragiz eta  
ezurrez egina?

*Mat.:* Hori erranen dauzut,  
Xalbador kuxian,  
karkulan egon gabe  
denbora luzian;  
ni moxkortuta ere  
joaiten naiz aisian,  
andria etzaut aitzen  
neri erasian.

*Xal.:* Donado gelditzerik,  
Mattin, ez desira,  
erori baitzaizke zu  
gainetik azpira;  
moxkorra heltzian etxeat  
erortzen bazira,  
andriak altxatu faltan  
hantxet hilen zira.

*Mat.:* Gogorik ez dut izan  
bein ere ezkontzeko,  
nere ideia izan da  
trankil bizitzeko;  
pena ederrak baitu  
zureak hartzeko,  
zu bestan zailaik harek  
behiak deizteko.

*Xal.:* Zure erran guziak  
baginitza adi,  
baginuke arrozoin  
erteko elgarri;  
neskek ezkondu baino  
nahio dute sehi,  
gero hunek erten du  
ez duela nahi.

*Mat.:* Hemen kantatzen tugu  
legun eta latzak,  
gauz hau entzun zazue  
zuek, gaizo neskatxak:  
hobe duzue hartu  
senar aberatsak,  
bainan pertsularirik  
ez hartu senartzat.


*Xal.:* Gu ere norbait gira,  
ez mintzatu hola,  
kusten duzue Mattin  
donado dagola;  
eta ez dukezua  
Jeinkoaz axola?  
Iduri duzu fruitu  
gabeko arbola.

*Mat.:* Hortan e zorionik  
ez bide da nihun,  
neskatxak, nahi dauzuet  
hauxet erran egun:  
koblari hartzen bauzue  
zuen bizi-lagun,  
zonbeit gau beharko'uzue  
pasatu alargun.



## ESNEKETARIA TA OSTALERRA

Luzaide'n 1960'eko Santiagotan kanta-  
tuak. Xalbador, esneketaria; Mattin, os-  
talerra. Gai-emale ta bertso-biltzalle, J. M.  
Satrustegi apaiz jauna.



*Xal.:* Hauxet adi dezala  
ostaler semeak,  
nik ere izaiten ditut  
tentazioneak;  
gaurkotzat ere egin  
baitauku eneak,  
edatera heldu nitzaizu  
saldurik esneak.

*Mat.:* Xalbadorrek salatu du  
oraiko puntuan  
frango abila dela  
letxero kontuan;  
ni hunen begira nago  
bai gostu-gostuan,  
egun guzietan da  
nere ostatuan.

*Xal.:* Urrikalgarria naiz  
nabilan maneran,  
malurosagorik baden  
ez ditaike erran;  
nola maiz sartzen nizan  
jaun hunen tabernan,  
esne purra saldu eta  
hura frango edan.

*Mat.:* Bere burua salatzen  
ari da ederki,  
uraren negozioa  
berak e badaki;  
jende batzuk erraiten  
ari zauzkit beti:  
esnia irakituta're  
ez da juaiten goiti.

*Xal.:* Leku txarretik dituzu  
gauza hoik jakinak,  
orai erranen dauzu  
untsa badakinak:  
nik beti saltzen ditut  
material finak,  
ez du goiti joan behar  
esne irakinak.

*Mat.:* Zure berriak badazkit,  
zaude zu deskantsu;  
zure letxerokuatik  
sobera espantu;  
berri-berritan famak  
baditut nik aitu:  
burra kendu ta uraikin  
emendatzen baitu.

*Xal.:* Etzauden jende on hauk  
gauz horren aiduru,  
dozena bat aski eta  
ukan amahiru;  
zuk aisa egiten duzu,  
jauna, hoinbertze diru:  
botoila batetarikan  
eiten tuzu hiru.

*Mat.:* Gauza horren berriak  
lagunak badazki,  
bera holakua dela  
ageri errexki;  
orai aitortu nai diot  
hemendik preseski:  
sei pinta erosi ta  
saltzian baitu zazpi.

*Xal.:* Zure edaria ez da  
hoik baino hobe,  
beharrik nik ezagutzen  
baidautut ordea;  
zurea botoila beltzian  
han dago gordea,  
eniak berriz bistan  
dauka kolorea.

*Mat.:* Ur pixka bat ematen dut,  
ari naiz aitortzen,  
naiz berari gauz bera  
baitzaion gertatzen;  
gure etxian ardura  
baida jaun au sartzen,  
arno txarra dudala ta  
halere moxkortzen.

*Xal.:* Zure arnoak ez deraut,  
ez, pizten barrena,  
hortan arrangura naizen  
ez naiz ni lehena;  
zure desohoratzeak  
emanikan pena,  
batzuetan egiten dut  
moxkortuarena.

*Mat.:* Karrikarat etortzen da  
hau beti argiko,  
eta bero-beroa  
ina eguardiko;  
orai're gaizki ari da  
nere iduriko,  
arno txarra banu nik  
elitzak'etorriko.

*Xal.:* Hortaz emanen dauzut  
nik azken pertsua,  
etzaitela izan, Mattin,  
hoin urgulutsua;  
bertze mundurako hun da  
zuk duzun kasua:  
urez itzaliko duzu  
ifernuko sua. (1)

---

(1) Sail ontako bertsoak geienak *Luzaide* aldizkarian, 23'gn. zenbakian, 1962/VII'an argitaratu ziran.

## JAUN MERA TA ERRETORA

Bertso auek Arnegi'n, 1963'gn. urtean, herriko festetan, Premundoinean, ahamen batzun artetik kantatu ziran.

Joseph Camino suiet-emaile: «Mattin, zu zitugu Arnegi'ko jaun mera; Xalbador, aldiz, jaun erretora. Merak ez nahi lagundu erretora elizako obretan; jaun erretorak, berriz, ez dako nahi eman asoluzionerik harek galdegin lanak egin aintzin.»

*Xal.:* Jaun mera, eldu nitzaizu  
orai zuregana,  
etzazula jendea  
hoinbertze engana;  
baduzu bazterretan  
zer nahi emana,  
eta egiteko da  
elizako lana.

*Mat.:* Erretora, ez duzu  
zuk bertze solasik,  
bortxatua naizela  
iduri du kasik;  
nik jende guzia  
ez dezaket atxik,  
eta zuk ez duzu nahi  
elizako baizik.

*Xal.:* Jendeak ezarririk  
zaude ohoretan,  
enekilan makurtu  
nai duzu betbetan;  
ez da zure urratsa  
ibiltzen horretan,  
deus eztuzu zarri nai  
elizako obretan.

*Mat.:* Frango egina badut  
nere iduriko,  
frogak eman da baida  
laster ageriko;  
gure eliza ezta  
gero eroriko,  
bearragoak badira  
nere iduriko.

*Xal.:* Zurea beti aintzina,  
gibela enea,  
ageri du etzirela  
herriko semea;  
ni ere ikusteko  
aski naiz ernea,  
zugatik galtzen ai da  
erlisionea.

*Mat.:* Hauk erraiten dituzte  
arrazoin azkarrak,  
eta gureak ere  
ez dira hain txarrak;  
beharragoak baitut  
lan egin beharrak,  
behar gehio dutenak  
badira bakarrak.

*Xal.:* Mera batek badauka  
obligazione,  
gaitz laiteke bertzenaz  
zure eta ene;  
herriaren zaintzeko  
hor zira zu berme,  
bainan, otoi, arrazu  
fedea're barne.



*Mat.:* Denak ikusi behar  
dira mundu huntan,  
hauxet ere hemen dut  
mihiaren puntan;  
kasu egizu ongi  
zer erranen dutan:  
fedia salduko duzu  
zuk ere dirutan.

*Xal.:* Zuk erran arrozoinik  
zoini ez ba gaitzi?  
Lurra bezain apalik  
hor bainuzu utzi;  
bertze lekua frango  
zuk arrañarazi,  
ta Jainkuaren etxeak  
ez dia merezi?

*Mat.:* Horren errateko're  
badu bekokia,  
erlisionia berak  
ongi badakia?  
Nik ez dakita Jesus  
nun dugun sortia?  
Hari aski zitzaion  
asto-barrukia...

*Xal.*: Eliza berritzea  
ezta, ez, ezina,  
egiten balitz nuke  
nik e atsegina;  
nehork ez dia entzun  
zure irrintzina?  
Astoa baginuke  
zu jiten bazina. (1)


---

(1) Bertso-sail au Jose Maria Satrustegi apaiz jaunak magnetofonoz artu zuan, eta bi azkenekoak *Gure Herria'n*, 1967, XI, "Xalbadorren ohoretan" deritzaionean, argitaratu zituan.

## IDORTEA TA EURI-SOBERAKINA

Arnegi'ko plazan 1963'garren urtean Jose Maria Satrustegi apaiz jaunak magnetofonoz bildutako bertsoak.

Gaia: «Xalbadorrek idortea maite du; Mattin, aldiz, euriaren alde da. On omen da aunditzeko.»



*Xal.:* Bakotxak dugun gertakizunaz  
kantuz behar dugu ari izan,  
ni nola idortearakin  
arras ongi bizi nintzan;  
aurten beti euripean  
iruzkiaren peskisan,  
juan den urtean miletan ere  
obekiago bainintzan.

*Mat.:* Xalbador orai idortearen  
alde zaugu kantuz hasi,  
nik berriz umitasuna  
ez dut nahi galtzeat utzi;  
joan den urtean nola ginen  
ez al duzue ikusi?  
Iaz erriak eta aurten denak  
berde-berdeak dagotzi.

*Xal.:* Bainan zuk, Mattin, ahazten tuzu  
hor gauzak erran beharrak,  
aurten kanpoa ez liro erre  
nunbait pizten balitz garrak;  
aurten, Mattin, egin ditugu  
nehon ez diran belarrak?  
Iaz onak egin ginituen  
etorri ziren pixarrak.

*Mat.:* Iruzkia ona da bainan  
euria behar artean,  
beti idor bada ere  
ororentzat da kaltean;  
nik badakit nola ibili  
zen hau joan den urtean:  
prozesionian ibilia da  
bera're euri eskean.

*Xal.:* Bai, otoitz egin ginuen bainan  
aurten beharra balaike,  
euri-soberakina ere  
nehork ez baitu maite;  
zuk ere ukan dukezu  
hortarik zombait neke,  
eldu den neguan saltzeko  
belar ustela merke.

*Mat.:* Hunek belarra ez omen du  
oraino aurten egina,  
soroa ere etorriko duk  
aurten bazkatzeko dina;  
ik guri esker iaz otoiztu tuk  
Jesus ta Ama Birjina,  
eta heiek aurten igorri  
hunek iaz galdegina.

*Xal.:* Ni aurten beti ez naiz goxoki  
joan den urtean bezala,  
bi hilabetez idortea  
egin balauku, oxala!  
Holako euripetikan  
Jeinkuak begira gitzala,  
bero delarik nolabait ere  
atxemaiten da itzala.

*Mat.:* Euria delarikan beti  
iruzkia du galdatzen,  
iaz nola kexu ibilia den  
bera're ezta oroitzen;  
goizean euria ikusi duelaik  
arras kontent omen zen:  
bertara jin eta ere  
etzuela lanik galtzen.

*Xal.:* Nik zuk erran duzuna, Mattin,  
ez dut hain ongi entzuten,  
miserableago bizi naiz  
kasu hortan ere aurten;  
besta izanagatik, etxian  
lanak beti du irauten,  
gaur berotu balu, belarra  
ni gabe sartuko zuten. (1)

---

(1) Bertso auek *Luzaide* aldizkarian, 27'gn. zenbakian, 1963/IX'an argitaratu ziran.

## XALBADOR IHIZTARI

Luzaide'ko plazan 1963 urteko Santiagotan kantatutako bertsoak. Gai-emaileta magnetofonoz bertso-biltzaile Jose Maria Satrustegi apaiz jauna:

«Jakina duzuen bezala, Xalbador ihiztari ederra baita, bere fama hedatia da mundu guzira. Berak kondatuko dauzki-gu espantu puxka batekin bere ihiztari-solasak. Eta gezurra balitz bezala atakatu du Mattinek.»

*Xal.:* Eskual-herrian ez ote dugu  
guk ihiztari abilik?  
Nik nihauren berri baitakit  
orai ez nago ixilik;  
ez naute gero ahalgetuko  
hor gaindiko zombait lilik,  
joan den neguan ere bainago  
basurde haundi bat hilik.

*Mat.:* Nik orai hasi beharko dut  
Xalbadorren atakatzen,  
berak dionaz abila da hau  
basurdeari tiratzen;  
bainan nihaurrek ez dut ikusi,  
hortako ez naiz fidatzen,  
hunek hil zuen basurde hura  
jada heria omen zen.

*Xal.:* Zernahi dela basurdea zen,  
sanoa edo heria,  
hark eneganik izana du  
nahiko miseria;  
etzen beti maingu segurik,  
zer alimale zalia!  
Beharrik gertatu nintzan  
holako tiraria.

*Mat.:* Mundu hunetan gertatzen dira  
holaxet ezinbertziak,  
basurde bat ekarri zion  
aintzinerat suertiak;  
hari tira ta ihes egin tu  
ehun debruen jauziak,  
erran naute utzi zituela  
bere arma ta guziak.



*Xal.:* Mattinek daki egia bainan  
ezta hasia aitortzen,  
orai basurdea utzirik  
bertzetaz mintza gaitezen:  
ene lagun zombait ez dea  
huntaz ere orroitzen?  
Iaz amar uso hil nituen  
tiroan Burdin-Gurutze'n. (1)

*Mat.:* Espantutarik seinale da  
hau dela ihiztaria,  
lehen pulita bota gaitu ta  
oraikuan berriz haundia;  
amar usoren hiltzeko kolpian  
ez da aski tiraria,  
ni beldur naiz hamar tiro ta  
bate usorik gabia.

*Xal.:* Ene parean dagon usoak  
bizia saltzen du merke,  
oraino ere sasoina balitz  
nahiagoko bainuke;  
aski andana haundi elgarren  
parian baderauke,  
bat kausituz geroz bertzen  
kausitzea ez da neke.

---

(1) Burdin-Gurutze mendi-lepo bat da. Andik  
barrena uso asko igarotzen da.

*Mat.:* Hunek inbido egiten nau ta  
botako diot hordago,  
gizagaizua neri zer saka  
hortxet pentsaketan dago;  
orai zu egiaz mintzatu,  
gezur hori hor bego,  
zuk hil duzu naski perdigun  
baino uso gehiago.

*Xal.:* Zuk ere, Mattin, erraiten tuzu  
gaur arras gauza konfusak,  
zure erranak ifrentzua're  
badu nola balusak;  
nundik atzemanen tuzu  
zuk ihiztarien hutsak,  
zonbat perdigun dituen  
ezpadakizu kartutxak?

*Mat.:* Perdigunen nonbrea baita  
kanbiatzen ardura,  
zure harek larria zuen,  
horixe gauza segura;  
eta bertzalde badakigu  
zoin den tirari makurra,  
behin erbia miratu eta  
kolpatu zuen zakurra.

*Xal.:* Holako bat baino gehiago  
gertatzen baita larrean,  
eta denak zartzen dituzte  
îztarien bizkarrean;  
bai, nik tiroa tiratu nuen  
erbiari hasarrean,  
gero zakurra ere gertatu  
zen erbiaren parrean.

*Mat.:* Ihiztari guzien gisan  
ari da gezur kondatzen,  
hunek dionaz zakurra ere  
erbiaren parrean zen;  
nere ustez arrazoin horiek  
ez direla hoin xuxen,  
hain hurbil izan balitz erbiari  
ausikian lotuko zen.

## HOGOI URTETAN BEZALA (1)

Erran daukute pertsularien egunean Kanbo'n atera pertsu hauk ainitzi plazer haundia eginen ziotela.

Suieta: Eskualdun kantuek amodioa aipatzen dute ardura, bainan geienean amodioa bihotz-minaren edo atsegabearen iturri bezala. Zuhaurek, Xalbador, Eskual-herriak duken olerki kanturik ederrean, «Esperantzarik gabeko amodioan», hauxe diozu:

Amodioa gauza trixtea,  
bihotzen hingatzailea...

Zu, Xalbador, eta zu, Xanpun, zuek zirezte kuple xahar bat, ainitz urte huntan ezkonduak. Zendako ez duzue kantatuko amodioaren ederra?

---

(1) Bertsoak eta adierazpena: *Herria*, 916'gna., 1968/II/22.

*Xanp.:*

Amodioari eman ote zaio  
sekulan bertze gradorik?  
Nere bizi hau nik beintzat ez deramat  
lehen hartua galdurik.  
Eta geiago ez dut emanen  
egun nik hemen kondurik,  
ez dut urriki egun daukatan  
lagunari ezkondurik!

*Xalb.:*

Amodioak iduri luke  
hogoi urteko itzala,  
adintsu hortan dagon presunak  
hitz hauek adi ditzala:  
Mende erdi bat beteko dut nik  
mundu huntan berehala,  
ta ene andrea beti maitatzen  
hogoi urtetan bezala!

*Xanp.:*

Zeruko Aitaren aurrean gindela  
elgarretaratu elizan,  
haren pareko egunik munduan  
kasik ez liteke izan!  
Eta geroztik beti egon naiz  
makur tzarretik gerizan,  
ba ta girixtino gisa dugu guk  
bat bertzea beti jasan!

*Xalb.:*

Amodioa gaztekor dela,  
huni ez zaiztela fida,  
amodioa bere errotan  
beti azkartzen ari da!  
Amodioa barne dutenak  
balin badirade bida,  
sendimendu on aberats hori  
nehoiz ez ditaike higa!

*Xanp.:*

Gure kasua hartuz ezkondu  
berriak ikas dezala,  
gur'argi horrek ez pentsa gero  
ez deraukala itzala!  
Bainan gogoan hartu-azue  
bihotzetik gabiltzala,  
eta pena bat jasaiten dugu  
atsegin on bat bezala.


*Xalb.:*

Amodioaren mail guziak  
ez dira arras berdinak,  
Jainkoak ditu adinarekin  
araberako eginak!  
Sendimenduño batzu ez daizke  
gazteetan bezein finak,  
bainan gorputzak uzten duena  
gero artzen du arimak!

## NEKAZARIA TA EIZTARIA

Elizondo'n 1969'garren urteko Otsailaren 16'an kantatutako bertsoak. Magnetofonoz Jose Maria Aranalde apaiz jaunak bilduak.

Gai-emale Mariano Izeta: Xalbador izanena da eiztaria, pizti txar oik iltzen dituen. Agirre izanena da nekazaria. Xalbador beti dabile Agirre'ren landa-zelaietan, ta Agirre'ri ori etzaio gustatzen. Launa bertso. Agirre'k emanen du asiera.



*Agi.:*

Aizu, Xalbador, eizian dezu  
zuk zere eginkizuna,  
ta alde batera aitortzen dizut  
mesede egiten dezuna;  
baña bestera egiten dezu  
oso pikardi lizuna:  
zu zera nere arto ta babak  
ondatutzen dituzuna.

*Xal.:*

Eiztarientzat erran solasak  
ez dira izaten bromak,  
da zer sufritu behar duen  
hauk entzuteko dagonak!  
Zuk etxeratzen dituzun uztak,  
Agirre, ez laizke onak,  
nik tiroz hiltzen ez banitu  
beleak eta azkonak.

*Agi.:*

Nik esan dizut alde batera  
eiten dezula mejora,  
bañan oraintxen ernegatuta  
bizi naiz lepotik gora;  
berriz e pasa zazu eizian  
nai dezun ainbat denbora,  
baña errenditzen ikasi zazu  
nere salletik kanpora.



*Xal.:*

Aitortzen dizut zuhaur zaudela  
zure landa-soron jabe,  
bainan ni gabe han egon laizke  
azkon-beleak errege;  
zer inporta du eiztari batek  
bi arto autsita ere?  
Tortillik eiten kusi duzia  
zuk arrautzeik autsi gabe?

*Agi.:*

Biotzak salto egiten zidan  
au esan didazunian,  
baña etzabiltza, Xalbador, zintzo  
zere eginkizunian;  
etzaitezuela iñor fiatu  
eiztaiaren esanian,  
ollua ere botatze'zu zuk  
itxuraz datorkizunian.

*Xal.:*

Gaixtagindako hartzen al naiz ni  
entzun eta zure hitza,  
nik badakit, bai, ongi beiratzan  
legea eta bai eiza;  
nik egin mesedetan ere zuk  
ikusten baduzu gaitza,  
zuri mesede egin beharrez  
alper-alperrik gabiltza!

**Agi.:**

Animaliya gaixtuentzako  
dezula diozu griña,  
aitzaki ortan juaten zera,  
ori da gauza jakiña;  
baña eiztari askoren gisan  
kontzientzia zikiña,  
Xalbador, kalte egin didazu  
ôindaño mesede aiña.

**Xal.:**

Gu eiztariak ibiltzen gira  
beste askoren onetan,  
bainan nik ez dut konfidentzirik  
honelako gizonetan;  
eskurik ez dut nik gehiago  
ezarriko eskopetan,  
ta pizti txarrek janen zaituzte  
zu hurrengo egunetan.

## AITA-SEMEAK

Elizondo'n, 1969/VII/20'an kantatua.  
Gai-emale Mariano Izeta: Aita-semeak  
dira; eta, aunitz aldiz gertatzen dena,  
aitak dirua egin eta semeak jan. Xalba-  
dor aita, eta Mattin semea. Seinua bertso.  
Aitak asiera, Xalbadorrek asiera:



*Xal.:*

Semea zer den ikasteko nik  
onekin izan dut jasta,  
aurrerat doa bere hartan ta  
nik ezin eman arrasta;  
kusi guziak erosi behar,  
dena dantza eta besta,  
gure etxeko modua hau da:  
nik egin da hunek gasta.

*Mat.:*

Orra nola den, jende maitiak,  
zahar horien gradua,  
beste gauzarik ez dute maite  
bakar-bakarrik dirua;  
gaztiak berriz ez dute nahi  
zahar hoiengandik,  
diruarekin nahiago dugu  
guk kurritu mundua.

*Xal.:*

Bai, gastatzaile segurrak dira  
bainan ez langile finak,  
aita ta seme asko ikusten  
dira egun ez-berdinak;  
diruarentzat errespeto ez,  
goza beren atseginak,  
berek eginik ez daukate ta  
gastatu bestek eginak.

*Mat.:*

Nik aspalditik kurritzen ditut  
zahar horien etxeak,  
eta berdinak ikusten ditut  
batzuek eta bertzeak;  
diru îteko hortxe dagozi  
gehienak erdi goseak,  
bertzela bizi nahiak dira  
gaurko eguneko gazteak.

*Xal.:*

Gaurko gazteak urguluz bete  
ari direla abiltzen,  
mundu guziak ikusten ditu  
zer modutan derabiltzen:  
gasta bakarrik eta hor kurri,  
ta ez badezue biltzen,  
zure semeai gostako zaio  
zu bezala erabiltzen.

*Mat.:*

Aita maitea, zure erranik  
nik eztut nahi sinetsi,  
eta hortako nabila beti  
zure erranetik igesi;  
baserri ona daukagu eta  
maxina berriak erosi,  
zuk baino aisô lana eginez  
semiak nai baitu bizi.

*Xal.:*

Guk ere lehen landu ditugu  
pentzeak eta alorrak,  
ta egun ez daukagu damurik  
ibilirik lan gogorak;  
bainan zuek hor asmo horrekin  
gehienetan moxkorak,  
ta gero zeinek pagatuko'tu  
tresnetan zuk egin zorrak?

*Mat.:*

Bein ere enaiz akort ibiltzen  
ni hoietan aitarekin,  
hunek dirurik ez balin badu  
berak ez daki zer egin;  
semia ezta batere lotsa  
tresnan egin zorrarekin,  
tresna hura pagaturen du  
beraikin ein lanarekin.

*Xal.:*

Zenbait gisetan lan egitea  
ez genduke guk makurrik,  
bainan semeak ez du ikusten  
gaur beste bide laburrik;  
diozu: «Tresnak eroskitzu ta  
biziko gira gu urrik!»  
Bainan berak ez du nai unkitu  
ez traktor ta ez aitzurrik.

*Mat.:*

Zuk enauzula ni konprenitzen  
hauxe da gure makurra,  
gaurko gaztiak maite baititu  
motorra eta trakturra;  
hau berriz beti hementxe dago  
dirudun gogo-laburra,  
nik sasira botako ditut  
gaur sega eta aitzurra.

*Xal.:*

Segarekin ta aitzurrarekin  
lan egiten ginueno,  
zorrik ez ginuen nehon ta  
osasuna ere sano;  
naikoa esana dautzut bainan  
hau ere entzun oraino:  
dirua gastatzen aisago da  
metara biltzea baino.

*Mat.:*

Burua gogortu zaio aitari  
orai semiak sinesteko,  
nik beti hauxet erraten diot:  
hoiek gogotik uzteko;  
azkenian hauxe erran bear diot  
hobeki konprenitzeko:  
hau beti pobre biziko dela  
gero aberats hiltzeko.

## AITA TA SUI-GAIA

Elizondo'n, 1969/VII/20'an. Gai-emalle  
Mariano Izeta: Xalbador gizon ezkondua  
da, eta sei alaba ditu, seiak ezkongaiak  
eta denak guziz ederrak; Lazkao ezkon-  
gaia da, eta or dago neskata oietaz arras  
gustatua, eta beti oien gibeletik. Lazkaok  
asiera:





*Laz.:*

Alde batera bildurrez nago,  
ai ezpaneuka lotsikan!,  
golpean galdetuko nizuen,  
enun ola bearrikan;  
zu alaba oien aita zera ta  
ez nuke nai besterikan:  
zure alaba irugarrena  
artuko nuke pozikan.

*Xal.:*

Beste bost ere etxean dauzkat,  
bostak daude oino gazte,  
hazitza lan gaiztoa zen ta  
orai bertze lan bat haste,  
aita bateri emaiten duna  
makiña bat buru-auste;  
nik zer esango dizut, ba, jauna?  
Beraikin konpondu zaite!

*Laz.:*

Ez dakizu nik artu detaen  
poza eta atsegiña,  
zure alaba konkistatutzen  
len egin det alegiña;  
aintxen da neska polita eta  
itxuraz berriz da fiña,  
alabarena eginda daukat  
zu konformatzen baziña.

*Xal.:*

Beraz zuk gure irugarrenai  
dezu begia botea,  
deseiatzen dut hura hartu ta  
izan dezazun suertea;  
bainan bertze kondizio txiki  
hau errez baita betea:  
aitari esan beharko dezu  
zenbat daukazun dotea.

*Laz.:*

Alaba bixkor-bixkorra bañan  
aita're ez da motela,  
batere enun pentsatzen bañan  
oraiñ entzun det epela;  
antzeman dizut lendabizitik  
diruan eske zaudela,  
alaba saldu nai al zenduke  
animaliyak bezela?

*Xal.:*

Ez noa alabaren saltzera,  
hau dizut nik esan-gogo,  
ezkondu eta izaten baita  
gero komedia frango;  
zerbait pentsatzen egoitea hobe  
dela nere baitan nago,  
haren bizia ez dadin izan  
etxian baino xarrago.

*Laz.:*

Enuen uste, aizu, Xalbador,  
orrenbeste esatea,  
etzazuela pentsa dirutan  
naizenikan arlotea;  
biotza daukat or izkutuan  
maitetasunez betea,  
eta alaba maitatutzea  
ez al da naiko dotea?

*Xal.:*

Nik ez nuke nai aita bezala  
alabari galerazi,  
bainan alaba txukuna da ta  
gaitzik ez luke merezi;  
hargatik nahi dizut hori nik  
zuri konprendi-arazi:  
hura hartzekoz beharko'ituzu  
taberna-zuloak utzi.

*Laz.:*

Oinbesteraño ezkon aurretik  
beartutzea gizona,  
alabarekin segitutzeko  
ez da, ez, ain gauza ona;  
aita zera ta zuk eiña dezu  
sarri tabernan egona,  
ta sui-gaiari kendu nai dio  
berai gustatzen zaiona.

*Xal.:*

Ni pozez nago hatzemanik gaur  
alabarentzat modua,  
guretzat ere iritxi baitzen  
esposatzeko ordua;  
hola lasaixago pasatuko  
degu aurtengo negua,  
ta, Joxe Migel, egiten dezun  
bertze bosten enplegua.

*Laz.:*

Gure errian beste bortz ere  
salduko dituzu laste,  
eta, Xalbador, etzaitez egon  
len zauden bezin triste;  
zu aitaiarreba izango zera,  
zure alaba emazte,  
zu ez bildurtu, irabazten det  
andre batentzat ainbeste.

## IZTEGIA

### ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

1/2: higu: gauza bat erabilliz desegin, gastatu;  
1/5: malur: zoritxar; 1/9: aunitzez: askozaz; 2/1:  
zendako: zertako; 2/2: maluros: zoritxarreko; 2/6:  
oroz: guziz; 2/10: ondikotz: zoritxarrez; 3/2: xar-  
magarria: *charmant*, xoragarria; 3/5: halaber, era  
berean; 4/3: eihartzera: igartzera; 4/3: bortxatua:  
beartua; 4/7: nehoiz: iñoiz; 5/7: bizi naizeno: bizi  
naizen artean;

### DOHAINA ETA LANA

1/8: jin: etorri; 3/7: egun: gaur; 5/1: debalde-  
tan: alperrikan; 5/2: entsegua: egiñala; 5/4: ple-  
gua: joera; 5/9: aintzinékoen: aurrekoen; 6/3: bihi:  
ale; 6/7: aintzina: aurrera; 8/5: artoski: arretaz;  
8/8: uzkur ta gibela: zabar ta atzera; 8/9: pindar:  
su-txinparta, illenti; 8/10: ilaundu: auts biurtu, itzali;  
9/5: jiten daike: etorri diteke; 9/7: deus: ezer; 9/10:  
artarik: arretarik; 10/3: bihia: alea; 12/2: egun:  
gaur; 12/4: urrun: urruti; 12/6: nehun: iñun;

### BAIGORRI

1/6: oro: danak; 2/7: zure kaskointzerikan: zu  
kaskoin (erdaldun) biurtzerik;

### XALBADOR BIZIKLETAN

1/3: suieta: gaia; 1/6: doako: dagokio; 2/1: en-  
goitik: onezkerok; 2/2: ixtripu: *accidente*; 2/2: ome-  
na: fama, sona; 2/7: ardura: maiz, sarritan; 2/7:  
tronpatzen: engañatzen; 2/8: sobera: geiegi; Bu-  
ruila: Agorra, Iraila; 4/3: lanjerrean: arriskuan; 4/5:

murrer buruz: paretan kontra; ormen kontra; 5/4: jinak: etorriak; 5/5: erremersiatzen: eskertzen 5/6: ahalaren araberan: al izanaren neurrian; 6/1: oren: ordu; 6/4: ukaldia: kolpea; 6/8: baninduala, bani-joala; 7/7: hautsi errota: kurpil uatsia; 7/8: antxe-  
ra: errematea, *subasta*; 8/2: tupeta: kopeta; 8/3: sa-  
katzeko: sartzeko; 9/1: agrados: atsegin; 9/2: erre-  
kontrua: *accidente*, ez-bearra; 9/5: ene ganik: ni-  
gandik; 10/4: hainitzendako: askorentzako.

## BAIGORRIKO JAUN ERRETORARI

1/1: mende laurden bat: eunki laurden bat, ogei  
ta bost urte; 1/8: arabez: itxuraz, dirudienez;  
ahantzeko: aztutzeko; 2/8: hel gaitezen: iritxi gai-  
tezen; 4/1: artoski: arretaz; 5/1: kapera: ermita;  
5/5: eman duzu: jarri dezu; 5/7: beirazaile: zaitza-  
lle; 5/8: so: begira; 6/3: beila: peleginazioa; 6/8:  
galdatzeko: eskatzeko; 7/1: serora: moja; 8/1: oro:  
danak; 8/4: seroratei: moja-komentua; 8/8: etxean-  
deregoa: etxeoandretza; 9/2: emana: jarria; 9/4:  
deusik: ezer; 9/6: solasik: itzik; 9/7: hautua: au-  
kera; 10/4: nehola: iñola; 10/8: girstino: kristau;  
12/2: galdegin: eskatu; 12/5: badakizia: ba al  
dakizu.

## ENE ERREKONTRUA

2/5: usor: usoai; 2/6: jin: etorri; 3/1: Urrieta:  
Urria; 3/2: oihanean: basoan; 3/3: ihizin: eizean;  
4/4: eri: beatz; 4/7: egun: gaur; 5/2: hatzema-  
nez geroz: arrapatu ezkerro; 5/3: bederen: beñepein,  
beintzat; 5/6: uros: zorioneko; 6/1: lanjerosa: arris-  
kukoa; 6/3: ez dea alabainan: ez al da bada; 6/5:  
ene malurrean: nere zoritxarrean, nere ez-bearrean;  
6/6: zina: juramentu; 6/8: aintzina: aurrera.

## LUKAX ADIXKIDEARI

2/1: ausarki: ugari; 3/8: zu bertzerik eskas: zu  
besterik falta; 5/1: haizu: libre; 6/4: afal-tenorea:  
afaltzeko garaia; 8/2: zinez laketu niz: benetan atse-  
gin artu det.

## PERTSUZ AGUR BAT

1/4: apezpiku: obispo; 1/7: lorietan so ginagokola: pozaren pozez ari begira geundela; 2/2: dea: al da.

## KENNEDY PRESIDENTA ZANARI

1/1: ar: ari; 1/6: betbetan: bat-batetan; 2/4: ihurzuri: trumoi; 2/7: herra: gorroto; 3/5: gaitz pentsurik: intentzio gaiztorik; 3/6: guhaurren: geronen; 4/2: aintzina: aurrera; 5/1: orain engoitik: emendk iaurrera, orain ezkeroztik; 5/2: barrea: desegin; 5/3: higuina: nazkagarria.

## ALDUDE'RI

1/2: lorian: pozez; 1/3: hartakotz dazkot egun: orregatik dizkiot gaur; 2/7: amultsu: maitekor; 3/6: estakuru: aitzeki; 5/2: denen arabera: denen iritzira; 5/5: jauzi: salto; 5/8: jautsi: jetxi.

## ERREXIL ZANARI

1/3: malurra: zorigaiztoa; 3/2: iragan: joan dan; 3/4: betan: batera; 4/3: suntsitzen: ondatzen, gal-tzen; setio: *sitio*, *cerco*; lotsagarria: bildurgarria; 6/4: xarmanta: *charmant*, xoragarria; 6/8: ele: itz; 7/6: deitoragarri: negargarri; 8/4: behako: begiratu; 8/5: dolutan: penetan.

## "AGUR BIHOTZEZ..."

3/3: igorriko: bialduko; 3/8: fini da: bukatu da; 4/4: trunbilka: pillaka; 4/6: atzarri: esnatu;

1/2: solasa: itza; 2/7: nehor deustarat: iñor ezertara; 3/3: galdegiten du: eskatzen du; 4/3: hautarik: aukerarik.

## ETXEAN

*Alabak aitari*: 1/2: iragan: igaro; 1/6: errekesta: *éxito*; 3/5: ainitzetan: askotan; 4/1: dea: al da; 4/3: osagarri: osasun; 4/7: bizi naizeno: bizi naixen artean.

*Aitona gaztea*: 4/1: higa: *desgastar*; 2/7: eihartu: igartu; 3/2: loriazko: pozezko; 4/7: heietaz bestalde: aietaz gañera.

*Bi ihiztari famatu*: 1/8: elurra bazeno: elurra zan artean; 2/2: oihanean: basoan; 2/5: alan: bazkan; 3/6: tronpatu: engañatu; 3/8: xarmanta: *charmant*, ederra; 4/1: deus: ezer; 5/6: trufa: burla; 5/8: malurra: zoritxarra.

## ORREAGA'KO AMA BIRJINARI OTOITZA

1/4: lanjerrean: arriskuan; 2/3: jasanez: sufrituz; 2/6: jina: etorria; 4/4: tronpa: engaña; 4/7: nihaurek: neronek.

## ADIXKIDE ONA

1/2: urosak: zorionekoak; 1/8: ez-ontsak: ongi ez daudenak, akatsak; 3/6: debalde: alperrik.

## AMAIZUNA

Amaizuna: ugazama; 3/4: amultsu: maitekor.

## HAZPARNE HERRIARI

1/1: zendako: zertako; 1/6: solasak: itzak; 2/2: haitada: saio; 2/8: erroa: sustraia; 3/4: arras debalde: guziz alperrik; 5/4: egi erten: egia esaten; 6/2: perestu: prestu; 7/4: derasa: dio.

## XAHAKUA TA KAIKUA

Xahakua: zatoa; 2/2: kotxua: egurrezko ontzia, kaikua; 2/5: deraukat: daukat; 3/7: atxikitzen: gordetzen; 3/8: ezantza: *essence, esencia*.

## SENAR EMAZTEAK

1/3: kitzikatzeko: zirikatzeke; 1/4: tenoria: garaia; 1/6: baigia: baigera; 2/4: haizu: zillegi, libre; 2/5: bederen: beñepein; 2/6: usu: maiz; 3/3: onbore: umore; 4/3: emenda: ugaldu; 5/2: has giten: asi gaitezen; 5/4: jiten: etortzen; 5/4: bortan: atean; 6/2: erten tu: esaten ditu; 10/2: nihauren: nero-



nen; 10/7: atsetan: arratsetan; 10/8: emaia: au-  
sardia.

### ARTZAINA TA OTSOA

1/3: betan: batera; 1/5: beira: gorde, zaindu;  
1/8: ardura: maiz, sarritan; 2/1: oro: denak, 2/5:  
beharrik. zorionez; 2/8: hil bai nindiro: ilko bai  
ninduke; 4/4: egun: gaur; 4/6: badaukazia: ba al  
daukazu; 4/7: ez dakizia: ez al dakizu; 5/1: hau  
iduriak; onen antzekoak; 6/2: oren: ordu; 6/3:  
hesten: ixten; 7/7: bertzenaz: bestela; 8/1: hemen-  
dik goiti: emendik aurrera; 8/3: hanbatik: orren-  
beste; 8/4: kezatzen: aserretzen; 8/7: ziniro: zen-  
duke; 10/4: pasten: pasatzen;

### EZKONDUA TA DONADUA

Donadua: mutilzarra; 3/8: errekesta: *éxito*; 4/8:  
maluros: zoritxarreko; 6/2: kuxian: bat-batetan;  
6/8: erasian: erritan; 9/4: erteko: esateko; 9/6:  
sehi: mirabe.

### ESNEKETARIA TA OSTALERRA

Esneketaria: esnezalea; ostalerra: ostalaria; 6/1:  
badazkit: badakizkit; 6/4: sobera: geiegi, sobra;  
6/7: burra: guriña; 7/2: aiduru: zai, itxoiten; 9/3:  
beharrik: zorionez; 10/3: ardura: maiz, sarritan.

### JAUN MERA TA ERRETORA

Mera: alkatea; 3/3: enekilan makurtu: nerekin  
okertu; 3/4: betbetan: bat-batetan; 3/5: urratsa:  
pausoa; 5/1: aintzina: aurrera; 5/2: gibela: atzera;  
7/3: bertzenaz: bestela; 7/6: berme: sendo, *firme*;  
9/6: arrañarazi: konpondu-arazi 9/8: ez dia: ez al  
du; 10/2: bekokia: kopeta; 11/8: jin: etorri.

### IDORTEA TA EURI-SOBERAKINA

Idortea: legortea; euri-soberakina: euritea; 2/3:  
umitasuna: ezetasuna; 3/2: ahazten tuzu: aztu-  
tzen dituzu; 3/3: liro: lezake; 4/4: ororentzat: gu-

zientzat; 6/7: igorri: bialdu; 6/8: galdegina: eskatua; 7/8: atzemaiten: arkitzen; 8/3: kexu: asarre.

### XALBADOR IHIZTARI

1/3: nihauren: neronen; 1/5: ahalgetuko: lotsatuko; 3/5: maingu: elbarri; 3/6: zalia: ariña: 3/7: beharrik: zorionez; 7/5: andana: banda, talde; 7/7: pantu: arronka; 7/5: andana: banda, talde; 7/7: kausituz: arkituz; 9/3: ifrentzua: *revés*, soñekoaren barru-aldea; 9/4: balusa: *terciopelo*; 9/5: atzemanen tuzu: arrapatuko dituzu; 10/1: nonbrea: lumeroa; 10/5: bertzalde: gañera; 10/6: makurra: okerra; 10/8: kolpatu: zauritu; 12/8: ausikian lotukozen: aginka asiko zitzaion.

### HOGOI URTETAN BEZALA

1/7: ez dut urriki: ez det damurik; 2/5: mende: *siglo*, eun urte; 4/4: azkartzen: indartzen; 4/8: higa: *desgastar*.

### NEKAZARIA TA EIZTARIA

4/7: kusi duzia: ikusi al dezu; 6/1: gaixtagin: gaizkille; 6/3: beirutzen: gordetzen, zaintzen.


### AITA-SEMEAK

1/2: pasta: probatzeko; 3/4: egun: gaur; 7/2: pentzeak: belardiak; 7/2: alorrak: soroak; 8/5: lotsa: bildur; 9/6: urririk: utsean, debalde, duan; 11/2: ginueno: genuen bitartean.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (Aitua).
2. M. Soroa: Gabon, au ostatubal, Anton Kaiku. (Aitua).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I.
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan.
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (Aitua).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (Aitua).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (Aitua).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (Aitua).
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (Aitua).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (Aitua).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (Aitua).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (Aitua).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (Aitua).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (Aitua).
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan.
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza.
33. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua.
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak.
38. S. Salaverriá: Neronek tirako nizkin.
39. Amar urteko bertso-paperak.

- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsularia.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsuak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsularia.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsularia.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA